TOKIKOM

aikor!

txorierriko aldizkaria

2014ko azaroa | 142. zenbakia

Aitzindariak

EnriqueThateEuskararenEgunaLezamakoGazteAsanblada

ERAKUSLEIHOEN LEHIAKETA

Parte-hartzaileen artean
50€-ko HIRU TXARTEL
zozketatuko dira.

Aukeratu zure gogokoena, gozatu eta irabazi!

Abenduaren 1etik 26ra

ZOZKETA abenduaren 29an egingo da Kultur Birikan,
20:00etan, GABONETAKO GALA HANDIAn.

Deriko Zerbitzu eta Merkaritzako Elkarte Profesionala
Danerik paraje!
Asociación Profesional de Comercios y Servicios de Derio

Derio

Deriocom

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

SUMARIOA 3

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorrizketan, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Jose Antonio Lekue, Derioko Liluraturia taldea, Itsasne Zubiri, Jose Angel Mentxaka, Bestorrene, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburordetza
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia

Txorierriko Mankomunitatea

diruz lagundutako aldizkaria

12 Enrique Thate

26 Euskararen Eguna

30 Lezamako Gazte Asanblada

4 Eritxia
5 Gutunak
6 Laburrak eta albisteak
10 Toti Mtnez. de Lezearen *Enda Lur*
12 Gurean izan da... Enrique Thate
14 Gaztea eta... Mikel García, eskalatzailea
16 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
18 Txokoan emakume pilotarien elkartea
22 Fernando Zamora, poeta
24 Txorierritarrak munduan... Aintzane Ramos
26 Euskararen Eguna
28 Erosi Txorierrin
30 Taldeak / elkarteak... Lezamako Gazte Asanblada
32 Berbalagunen txokoa
34 Teknologia... eus. domeinua
35 Aikorrizketa... Euskaraz jakin; euskaraz bizi
36 Sukaldaritza
37 Denborapasa
38 Agenda

AIKOR! 142 I 2014ko azaroa
www.aikor.com

Ongizatearen gizartea eraikitzen?

BELEN GANA
(Euskera irakaslea)

Personen bizitzak jaiotzetik hil bitartean duina, osoa eta zoriontsua izan behar dauala danok pentsetan dogu. Ongizatearen gizartea eraikitzeko beharretan gabilz. Soldata eta etxebizitza duinak oinarrizkoak dirala ez dau inork zalantzan ipiniko. Zuzen ote gabilz, baina? Zerbaitek huts egiten dauala argi ikusten dogu gaur egungo egoera honetan: sistemak harrateak eta trabak ipini baino ez dau egiten. Gura doguna ikasteko zein behar egiteko edo etxe duin bat izateko zailtasunak agerian dagoz: muga goian, eta gero eta gorago. Nork dauka eskatzen dan lan-bizitza osorako lan-ziurtasuna gaur egun? Zenbatek etxebizitza bat erosteko abala emon ahal deutsee seme-alabei? Izan be, etxe barik eta zorra ordaintzen makina bat dabil. Arriskua handitu egin jaku.

Lan-ezegonkortasunak zure familia murriztu beharra ekarten deutsu. Emakumezkoa bazara, lan-bizitza eskasa eta gogorra jatortzu. Oraintsu entzun dogu Google enpresa "aurreratuak" erabagi dauala emakumezkoak diran langileei beren obuluak izozteko aukerea oparitzea, produkzio-garaian haurdun gelditu ez daitezan eta zaharragoak diranerakoedo itxi dagien. Derrepentean galdera batzuk datoz burura: nork babesten dauz umeak? Eta emakumeak? Eta gizartea? Orain aitita-amamak badabilz seme-alabei umeakaz laguntzen, gero emakumeak umedun gelditukо dira ia amamak izateko adina daukienean? Zein motatako gizartea eraiki gura dogu? Nork ordainduko ditu gure pentsinoak, urte batzuk barru behar egiteko jente nahikorik egongo ez bada?

Beharra topa ezinik, gazte askok atzerrira joateko aukerea hartu dabe. Bertakoek asko pentsau barik erabagiten dabe seme-alabak izatea; osterantzean, behar barik, etxe barik... ezin dabela ikusten dabelako. Familia da babestu daiken bakarra, alkarri laguntzeko gunerik hoberena. Atzerakada handia egin dogula esan beharrik ez dago. Batzuek aukera gitxi daukie hemendik aurrera erretiro osoa kobretako, baina beste batzuek, arin baten, erretiro-plana Kaiman uharteetara edo antzekoetara dirua eroanda egin dabe.

Ai ene! Eta zaharrak? Zer egin zaharrakaz? Horreetaz hurrengoan egingo dogu berba. Bitartean, ahalik eta zoriontsuen bizi eta hurkoa lagundu, lagunak!

Merkataritza librea

JOSE ANTONIO LEKUE
(Baserritarra)

Izen polita jarri diote: librea. Estatu Batuak eta Europar Batasunak TTIP hitzarmena (Merkataritza eta Inbertsio Lankidetza Transatlantikoa) sinatu gura dute, merkataritza erregulatzeko ei dena. Baina, justu alderantziz: merkataritza desarautuko du eta, bertoko merkataritzaren kalterako, multinazionalen interesetara egokituko da. Ez dio elikadurari bakarrik eragingo, ez. Izenak dioen moduan, askoz zabalagoa da eta sektore guztietan izango du eragina.

Aurreko urteetan globalizazioarekin egin duten eran, merkantziak batetik bestera kontrol barik mugitzeko sortu da plana. Negoziaketak sekretupean egin dira, eta esango nuke multinazionalen *lobby*-en esku egon direla. Ez da inolako eztabaidarik sortu jendartean.

Berriro ere akats berdinak egitera goaz, tokian tokiko ekonomia deuseztatzera, energia gehiago kontsumitzera eta, ondorioz, kutsadura gehiago sortzera. Ez da erraza ulertzea, esate baterako, Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Adituen Taldeak egin duen IPCC txostenaren aurkako neurriak hartu izana.

Jarduera ekonomiko txikiko ekimenak kaltetu egingo dira hainbat sektoretan. Europako gaur egungo kontrol sistemak desagertuko dira eta ingurumen-krisia areagotuko da. Espekulatzaileek bakarrik irabaziko dute eta kalte egingo zaio herrien etorkizunari.

Nekazaritzan izango duen eragina negargarria izango da, esan dugun moduan, elikadura ekoizteko arauak aldatuko direlako osasunaren, jarduera txikien eta ingurumenaren kalterako. Besteak beste, higiene eta osasun arautegia negoziatzen dabiltza, esaterako, ganadua elikatzeko hormonak eta antibiotikoak erabiltzeko erraztasuna, transgenikoak onartuko dituena.

Horren guztiaren aurrean, aspalditik aldarrikatzen gabiltzan aukera bultzatu behar dugu; hau da, elikadura-burujabetza eta agroekologian oinarritutako nekazaritza.

Baserritar eta kontsumitzaileen arteko harreman zuzena izango duen baserria behar dugu. Produktua baserritarren eskuetatik kontsumitzaileengana zuzenean heltzea ekarriko duena. Pertsonak, lurra eta animaliak errespetatuko dituena. Bere jardueran ingurumena kontuan hartuko duena. Azken batean, baserri eredu konkretu bat eskaini behar diogu gizarteari.

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkero, AIKOR!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@aikor.com.

Euskara-azterketa Larrabetzun

Euskararen erabilera sustatzeko asmoz ari omen da lanean Larrabetzuko Udala, bertoko hainbat eragileren laguntzaz batera. Azken urteotako gabeziak kezkatuta, aholkularitza enpresa bat ere kontratatu dute, antza, behar bezalako diagnosia egin dezan egoeraz. Non eta Larrabetzun, Txorierriko udalerririk euskaldunenean; euskara, oro har, gainbehera doalako seinale.

Kontua da azken urteotan, hain zuzen ere, paraxutistaz eta kolonoz bete dela herria, edo hala entzuten da, behintzat, herriko zenbaiten ahotan. Paraxutistak ei dira bertora ezkondu edota arrimatu diren kanpotarrak, eta, kolonoak, berriz, ezelako lotura barik, bertoratu egin garenok; bai, azken horietakoa naiz ni neu ere.

Bada, gauzak horrela, erraz ondoriozta liteke zirkunstantzia horrek zuzeneko eragina duela Larrabetzuko euskalduntasunaren galeran. Areago, urriko arratsalde batean, orduko udazken udatiarraren hozbero gozoa gozatu guran plazan ginela, bertoko bat gure aurretik igarotzean, ozen bota zuen "*¡cuántos maquetos!*", erdara gorrian, han ginenok ederto entzuteko moduan. Nik begiratu baino ez nion egin, txintik esan gabe, eta nire inguruan zebiltzan "maketoek", edo ez entzunarena egin, edo benetan ez zioten entzun, erreakziorik bat ere ez baitzen han sumatu.

Niri, ordea, zer pentsatua eman zidaten hitz haiek, beharbada, gauden tokian eta garaian bizi garelako, eta, orain, hitzok birgogorarazi egin dizkit Udalaren euskara planaren albisteak. Izan ere, Larrabetzun, hain zuzen, kolonoon ahotik entzuten da euskara gehien kalean, edo hala iruditzen zait niri, behinik behin, egunero edonori eta edonon lehenengo berba euskaraz ematen dudan kanpotar honi. Jakina, gurea euskara arrotz samarra izango da larrabetzuarrentzat, agian, plastikozko euskara, baten batentzat, baina euskara da, azken batean. Bertoko aker askoren arteko talkan, ostera, erdara izaten da nagusi sarritan eta, haren oihartzun zaratatsua, taberna, komertzio zein kaleetan barna, lau haizeetara zabaldu da aspaldion, Udalaren, eskolaren, Txinpasmendi eta Arrekikili elkarteen preokupazio eta okupazioa izateraino zabaldu ere.

Itxaron dezagun, bada, ea zer-nolako diagnosia egiten duen aholkularitza enpresa horrek, ea zer ahulune eta mehatxu aurreikusten dituen, zer indargune eta aukera baliatzen dituen. Itxarongo dugu, bai, ea kargutzen diren apelliduak abizentzea ez dela nahikoa, eta zer abizendu ez daukagunok dezente ematen dugula egunerokoan, ezin garela beti berberok izan besteren kalteen eragile. Eta, itxaron bitartean, euskaraz bizitzen ahalegintzen segituko dugu, kolonook bederen.

Kristobal Kolono

AIKOR! 142 I 2014ko azaroa
www.aikor.com

Mendian seguru ibiltzeko aholkuak

Lezamako Udalak hitzaldi bat antolatu du abenduaren 19rako, Gailur mendi taldearekin batera. Hitzaldia iluntzeko 8etan izango da, eta Alberto Ceberio Ortuzarrek emango du. Suhiltzailea izateaz gainera, Alberto instruktorea da larrialdi-egoeretan eta mendi erdiko kirol teknikaria ere bada. Besteak beste, mendian topatu ahal ditugun arriskuak zeintzuk diren azalduko du, hala nola, ekaitzak eta istripuak, eta horiei zelan aurre egin. Era berean, teknologia berriek zelan lagundu ahal diguten jakinaraziko du.

Plateruenari laguntzeko Cd-ak

Plateruena Durangoko Kafe Antzokiak duela hamar urte eraikina berritzeko eskaturiko kredituaren 250.000 euroko zorrari aurre egin behar dio datozen bost urteetan. Irailean diru-ekarpen kanpaina bat ipini zuten abian kafe antzokiari laguntzeko, eta, azaldu duten moduan, kanpainaren erdira ailegatu dira eta behar dutenaren laurdena lortu dute. Katamalo taldeak kanpainarekin egin du bat. Azken kontzertua 2011. urtean eman zuten Plateruenean eta kontzertu hartako grabazioaren eskubideak kafe antzokiari eman dizkiote. Katamaloren zuzeneko diskoa zortzi eurotan eskura daiteke AIKOR! aldizkariaren bulegoan.

84 korrikalari, Larrabetzuko I. Txakurkrossean

Azaroaren 2an, Larrabetzuko Txakurkrosa antolatu zuen Karradera elkarteak lehenengo aldiz. Ekitaldian 84 korrikalarik hartu zuten parte eta antolatzaileak pozpozik azaldu ziren parte-hartzaileen kopuruarekin. Horrela, bada, proba datorren urtean ere egiteko asmoa dutela adierazi ziguten. "Lehenengo urtea izan da eta oinarria jarri dugu. Lanean gabiltza kirol hau ahalik eta gehien zabaltzeko eta, horren haritik, Bizkaiko Liga ipini da martxan. Ligaren lehenengo lasterketa Larrabetzun egin da. Datorren urtean Bizkaiko Txapelketa hartuko dugu herrian, beharbada", esan zigun Haritz Karrera antolatzaileetako batek.

Parte-hartzaileak bizkaitarrak izan ziren batez ere, baina Asturiasetik, Kantabriatik edo Iparraldetik ere hurbildu ziren Larrabetzura. Irabazleak Jose Felipe Larrazabal eta Leire Fernandez izan ziren, gizonezkoen eta emakumezkoen kategorietan hurrenez hurren. Lasterketa ez ezik txakurkross-erakustaldia ere antolatu zen. 50 ume aritu ziren horretan eta primeran pasatzeaz gainera, kirol honen berri ere izan zuten. Betiko moduan, Larrabetzuko lagunek bat egin zuten lasterketarekin eta izugarrizko laguntza eskaini zieten antolatzaileei ibilbidea atontzeko, boluntario moduan korrikalariei laguntzen...

Txakurkrossa kirol berria da eta gero eta jarraitzaile gehiago du. Txakurrak korrika egiten du, eta atzean, txakurrak bultzatzen duela, korrikalaria doa, soka baten bidez txakurrari lotuta.

Andoni Lubaki fotokazetaria, DAT taldearen gonbidatua

a: Andoni Lubaki

Derioko Argazki Taldeak ikastaro bi, erakusketa bat eta hitzaldi bat antolatu ditu abendurako. Taldearen argazkiak abenduaren 18tik urtarrilaren 19ra arte egongo dira ikusgai Kultur Birikan. Abenduaren 5ean, 18:00etan, oinarrizko ikastaroa egingo dute argazki-kameraren erabilerari buruz eta argazkigintzaren oinarriei buruz. Bestalde, Andoni Lubaki fotokazetariak "Fotokazetaritza gatazka armatuetan" hitzaldia eskainiko du abenduaren 26an, 19:30ean, Kultur Birikan. Era berean, argazki-erreportajea egiten ikasteko tailerra emango du hurrengo egunean, abenduaren 27an. Tailerra Kultur Birikan izango da ere, 10:00etan hain zuzen ere. Tailer honetan zein abenduaren 5eko ikastaroan parte hartu ahal izateko, izena eman behar da datfotoderio@gmail.com helbide elektronikara mezu bat bidalita.

Lubaki 2011. urtetik hona darama gatazkan dauden herrialde eta eremuetan argazkilari lanean, hala nola Argelian, Sirian eta Birmanian. *New York Times, The Guardian* edo *Al Jazeera* nazioarteko komunikabideetarako egiten du lan, baita *Associated Press* edota *VICE News* agentzietarako ere. Era berean, bere testuak zenbait argitalpenetan agertu dira, esate baterako, *Gara* egunkarian eta *Argia* aldizkarian. Besteak beste, *Chris Hondros* eta *Pictures of the Year* sariak eskuratu ditu.

Bizkaiko Kultur Txartela

B motako txartela da eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak sustatu du. Txartelak 28 euro balio du, baina erosten duenak 40 euroko balioa duen bono bat lortuko du. Bono hori edozein kultur ikuskizunetara joateko erabili ahal da. Txartela abenduaren 1etik urtarrilaren 29ra arte egongo da eskuragai Kutxabank-eko orotarako kutxazainetan.

Aurreko kanpainetan bezala, Sondikako Kultur Etxeak (SKE) bat egin du egitasmoarekin eta aukera ematen du txartela bertan erabiltzeko. Hala, txartela urtarrilaren 31ra arte hamar sarreraz osatutako bono baten truke aldatu ahalko da liburutegian edo SKEn bertan. Bonu-sarrerak SKEko txarteldegian alda daitezke edozein ikuskizun hasi baino ordu bat lehenago, bertan ematen den zinea edo antzerkia ikusteko. Hamar bonu-sarrerak aldatzeko epea 2015eko abenduaren 31n amaituko da eta sarrera bakoitzak lau euroko prezioa edukiko du.

AIKOR! 142 | 2014ko azaroa
www.aikor.com

Euskahaldundu!

Martxoaren 19tik 29ra bitartean Korrika 19k kolorez zipriztinduko ditu Euskal Herriko auzoak, kaleak, errepideak… Urepeletik Bilbora, euskararen aldeko lasterketak ahalmen batuketa izan nahi du; ahalmen biderketa. Txorierrin laster aurkeztuko dute Korrika eta gure eskualdeari dagozkion zehetasunak emango dizkigute. Horrela, bada, egitarauak eta kanpainak hasi dira prestatzen, eta Txepetxa AEK euskaltegian, esate baterako, arropa ipini da salgai.

Autoedizioa, Durangoko Azokan

Azoka abenduaren 5etik 8ra zabalduko ditu ateak eta bertan zapore guztietako eskaintza topatuko du bisitariak. Egitarauari dagokionez, 150 kultur ekitaldi antolatu dira, eta horietan 500 sortzailek hartuko dute parte. Durangon 132 partaide egongo dira aurten, eta horiei autoedizioaren alde egin duten beste 16 partaide gehitu behar zaie, azokan lehenengo aldiz egongo direnak. Guztira 330 nobedade aurkeztuko dira eta Argizaiola Saria Anuntxi Aranak jasoko du. Aranak euskal mitologiari buruz egin ditu lan idatziak. Aurten, herrialde gonbidatua Okzitania izango da.

Gabon-kanten jaialdia

Tradizio handiko ekitaldia da Txorierrin Gabon-kanten jaialdia, herritar asko batzen dituena, eta aurten 29. edizioa beteko da. Txuma Olagüe Sondikako abesbatzak jaialdia antolatzeko ardura eduki du oraingo honetan.

Orotara sei kontzertu emango dira. Lehenengoa Lezamako elizan izango da, abenduaren 12an, 20:00etan, eta Txorierriko sei abesbatzek hartuko dute parte: Ipar-Alde (Derio), Zamudioko Kamara Korala, Gaztelumendi (Larrabetzu), Txuma Olagüe eta Olagüe elkartea (Sondika) eta Ekidazu (Lezama). Bigarren emanaldia hurrengo egunean, abenduaren 13an, eskainiko da Derion, 20:00etan: Ipar-Alde abesbatzarekin batera Zamudioko Kamara Korala eta Ekidazu arituko dira elizan. Loiuk abenduaren 14an hartuko du jaialdia: Gaztelumendi abesbatzak, Olagüe elkarteak eta Txuma Olagüe abesbatzak goizeko 12:45etik aurrera eskainiko dute kontzertua elizan.

Abenduaren 19an, Iparralde, Gaztelumendi eta Ekidazu abesbatzak egongo dira Larrabetzun. Eta abenduaren 20an hauek egongo dira Zamudion: Olagüe elkartea, Txuma Olagüe abesbatza eta Zamudioko Kamara Korala. Emanaldi biok 20:00etan izango dira. Gabon-kanten jaialdiaren azken kontzertua abenduaren 27an, 19:45ean, egingo da Sondikan. Bertan Txorierriko abesbatza guztiak entzuteko aukera izango dugu.

Derioko taekwondolariek jarraitzen dute arrakasta izaten

Azaroaren lehenengo asteburuan Pontevedrako Nazioarteko Opena izan zen eta han Doyan Derioko Taekwondo Klubeko 32 kirolarik hartu zuten parte. Orotara 850 taekwondolari aritu ziren Openean. Deriotarrek 14 domina lortu zituzten borroka kategorian: lau urre, hiru zilar eta zazpi brontze; eta 6 domina, teknika kategorian: urre bi, zilar bat eta hiru brontze. Klubatik nesken taldeak izandako emaitzak aipatu dituzte bereziki. "Izan ere, bigarren postua eskuratu dute borroka kategorian zein teknika kategorian". Era berean, Maialen Llonak, Angie Herrerak eta Haizea Arranzenek osatutako hirukotea zoriondu dute. "Euskadiko txapeldunak dira teknika kategorian eta Pontevedrako Openean ere izan ziren txapeldunak. Iruñeko Opena ere irabazi zuten".

Galizian izandako emaitzak onak izan arren, klubetik adierazi dute beharrezkoa dela lanean jarraitzea. "Apaltasun eta ilusioarekin, hazten jarraitzeko".

Azaroko azokak

Nekazaritza eta Abeltzaintza Azoka egin zen Zamudion. Hogeita bederatzigarren edizioa izan zen. Bertan, baserriko produkturik onenak izan genituen ikusgai eta salgai: barazkiak, gazta, hestebeteak… Gainera, aurreko urteetan bezala, Bizkaiko Limusin arrazako Abelgorrien Txapelketa egin zen azokaren egitarauaren barruan. Tradizio handiko azoka da Zamudiokoa, baina urterik urte berritzen dena. Aurten, esate baterako, Thate familiak Alemaniako zaporea ekarri zuen Txorierrira, November-festaren eskutik. Gozokiek eta artelanek ere euren lekua eduki zuten azokan.

Sondikak ere hartu zuen Eskulangintza, Nekazaritza eta Abeltzaintza Azoka. Aurtengoa 18. edizioa izan da. Baserriko produktuez gainera, Bizkaiko Txakolina, Idiazabal gaztea eta euskal pastela dastatzeko aukera egon zen. Era berean, elikagai ez galkorren bilketa egin zen.

AIKOR! 142 | 2014ko azaroa
www.aikor.com

Leinuen lurraldean

Gizon-emakumeek erraldoi eta herensugeengan sinesten zuten garai ilun batera garamatza Toti Martinez de Lezeak bere azken eleberrian: *Enda Lur* (Erein). Garai gogorra zen, eta beste lurralde batzuetatik etorritako inbaditzaileei egin behar izan zieten aurre orduko leinuek.



t: Itxaso Marina / a: Aritz Albaizar

Enda Lur eleberri epiko-historiko-mitologikoa da. "Eleberri eta pelikula fantastikoak gustatzen zaizkit. Horri lotuta dugun imajinarioa anglosaxoia da, eta pentsatu nuen: "Hainbeste legenda, pertsonaia mitologiko, paisaia zoragarri… ditugula kontuan izanik, zergatik ez kokatu Euskal Herrian bertan halako istorio bat?".

Larrabetzuko idazleak adierazi digunez, eleberri fantastiko bat idazteko asmoa izan zuen hasieran, euskal mitologian oinarriturik, baina azkenean seigarren mendean kokatu zuen istorioa, historiarako duen joerak bultzaturik. "Garai hartan, frankoek eraso zioten Euskal Herriari iparraldetik, lurraldea konkistatzeko, eta godoek, berriz, hegoaldetik. Nik frankoekin izandako gatazkan ipini dut arreta, eta Ipar Euskal Herrian kokatu dut ia istorio osoa, euskal tribuak bizi ziren antzinako lurraldeetan, haiek Andorraraino iristen baitziren orduan". Lehengo euskaldunen sinesteak ere batu ditu eleberrian. "Jendeak antzina sinesten zuena ere historikoa da, guda bat historikoa den bezala. Lehengo kontu zaharrak balira bezala hitz egiten dugu mitologiari buruz gaur egun, baina grekoek beren mitologian sinesten zuten, nordikoek beren mitologian, eta gure arbasoek ere bazituzten beren sinesteak".

Enda euskarazko hitza da, eta leinua esan nahi du. Liburu honetan, pertsonaia sorta zabala aurkezten digu Totik: Endara, Ihabar, Garr, Ozen, Baladaste… Haiek eta beste batzuek leialtasunaren eta traizioaren artean aukeratu beharko dute; askatasunaren, justiziaren eta morrontzaren artean.

Batez ere nobela historikoa lantzen duen idazlea da Toti, baina oraingo honetan genero berri batekin ausartu da. "Izan ere, oso aspergarria da beti gauza bera idaztea. Aldaketa behar dut, hala eskatzen didate gorputzak eta buruak. Neure buruari erakutsi behar diot gauza naizela eleberri fantastiko bat, edo umorezko

"Jendeak antzina sinesten zuena ere historikoa da, guda bat historikoa den bezala"

eleberri bat, edo gaztetxoentzako liburu bat… idazteko". Haren hitzetan, oso pozgarria izan da *Enda Lur* idazteko prozesua, oso baliagarria gure historiari eta ohiturei buruz gehiago ezagutzeko. Besteak beste, historia liburuak eta entziklopediak arakatu ditu, eta eleberrian aipatzen diren lekuak bisitatu ditu.

Aurrerakin bat ere egin da liburua sustatzeko, eta YouTuben jarri da ikusgai: bilatzailearen leihatilan, Enda Lur idatzi behar da hura ikusi ahal izateko. Adiune proiektuen fabrika enpresak egin du aurrerakin hori, eta larrabetzuarrak ibili dira aktore bertan. Musika Maite Itoizek (Elfenthal taldea) ipini du.

Beharrizana

Enda Lur eleberria euskaraz zein gazteleraz eman da argitara. "Gazteleraz idatzi eta bere liburuak euskaratuta dituen idazle bakarra naiz. Nire beharrizan bat da, argitaletxeari beti ipintzen diodan baldintza".

Ate joka dugu Durangoko Azoka, eta hara joateko irrikan dago Toti. "Esperientzia bakarra eta ederra da: hainbeste euskaltzale, euskal kulturari dioten maitasunak leku berean bildurik; adiskideekin eta ezezagunekin topo egitea… Eta gainera, barnetegi sakona da niretzat! Zoragarria da".

Eleberriaren promozioan buru-belarri dabil Toti; elkarrizketak han eta hemen ematen, aurkezpenak egiten… Lan neketsua da, baina asko gustatzen zaiona. "Oso berritsua naizelako eta liburua idazteko prozesua zelan izan den besteei kontatzeko aukera ematen didalako". Hurrengo proiektuei dagokienez, aurreratu digu badabilzkiola ideia batzuk buruan. "*Lur* bilduma amaitutzat eman dut eta beste proiektu bat egin nahi dut zazpi urtetik hamaika urte bitarteko gaztetxoentzat. Hurrengo eleberrirako ere badaukat zerbait pentsatuta… Baina horri guztiari urtarriletik aurrera emango diot forma".

AIKORI 142 I 2014ko azaroa
www.aikor.com

“Guztioi gustatzen zaizkigu saltxitxa eta garagardo on bat”

ENRIQUE THATE I txerriki-egilea

Aurten, November Festa antolatu da lehen aldiz Zamudioko azokan. Saltxitxak, txerri-ukondoa eta Alemaniako garagardo mota asko dastatzeko aukera izan zuten bisitariek. Enrique Thatek antolatu zuen festa, eta haren iritzia jaso dugu.

t/a: Gaizka Eguzkitza

Zelan Zamudion?

Zerbait berria zen herrian, eta oso pozik irten ginen guztiok. Jende asko etorri zen, eta eraman genuen jenero guztia agortu zen. Deitzen badigute, datorren urtean ere egongo gara Zamudion.

Zein izan zen arrakastatsuena: garagardoa ala janaria?

Biak. Azken batean, edaten baduzu, jan egingo duzu. Garagardo mota batzuk ekarri genituen Txorierrira: gari-garagardoa, beltza, horia, gorria... Oktoberfest bier da bereziena; hura Munichen bertan eskaintzen dute Alemaniako Urriko Azokan. Garagardo hori geuk baino ez dugu ekartzen Bizkaira. Dena dela, batez ere garagardo horia eta saltxitxa zuriak hartu zituen jendeak Zamudion.

Zuen saltxitxak bereziak omen dira. Zelan egiten dituzue?

Familiak hiru belaunaldi daramatza txerrikia egiten. Hemengo enpresa handiek antzeko era batean egiten dituzte saltxitxak; hau da, prestakin berezi bat erabiltzen dute. Guk, aldiz, espeziak nahasten ditugu, eta hor dago gakoa. Oro har, Alemanian egiten dituzten moduan egiten ditugu, baina hemengo gustura apur bat egokituak. Esate baterako, guk berakatza erabiltzen dugu, hemengoei gustatzen zaielako.

Garagardoaren Azoka urrian egiten da Alemanian. Gaur egun, Bizkaian ere antolatzen dira azoka alemaniar pilo bat, ezta?

Bai, modan jarri dira. Gu 1992an hasi ginen azokekin. “Azokak kristoren arrakasta badu Alemanian, zergatik ez hemen?”, pentsatu genuen. “Azken batean, zer da Urriko Azoka, ba? Musika talde bat erdian, eta inguruan, eserleku luzeetan jesarrita, jendea abesten, edaten eta jaten. Horrek funtzionatu egin behar du hemen, Euskal Herrian”. Guztioi gustatzen zaizkigu saltxitxa eta garagardo on bat. Merkea eta goxoa da, eta gainera, tripa betetzen du.

Familiak ia 100 urte daroa Euskal Herrian, baina ez duzue nortasun alemaniarra galdu... Zuek zer zarete, euskaldunak ala alemaniarrak?

Hemen bizi eta lan egiten dut, beraz, nolabait aukeratu egin dut, baina Alemania ere izugarri gustatzen zait. Niri hemen Alemania defendatzea gustatzen zait, eta Alemanian, Euskal Herria. Nire lanak hori egiteko aukera ematen dit, baina horregatik izango ez balitz ere, berdin-berdin egingo nuke. Gu lau anai-arreba gara eta Alemanian ikasi dugu guztiok ogibidea, Oihan Beltzean. Bertan beti tratatu gaituzte primeran. Duisburgo aldean senideak ditugu. Gaur egun, urtean hiru aldiz joaten naiz Alemaniara.

Topa Bilbori!

Enriqueren aitita 1918an heldu zen Bilbora. Bertan taberna alemaniar txiki bat ireki zuen, eta ondoren, 1922an, lehenengo txarkuteria. Geroago, beste txarkuteria bat zabaldu zuen. Familiak haren lekukoa jaso zuen eta txerrikia alemaniar erara egiten jarraitzen du. Haren produktuak Bilbon duten txarkuterian zein supermerkatu batzuetan eros daitezke.

Thatetarrak oso ezagunak dira Bilbon, batez ere 1999an taberna ireki zutenetik, Ein Prosit Bilbao, topa Bilbori. Taberna alemaniar estiloan diseinatuta dago. "Gure produktuak saltzeko beste era bat da taberna", azaldu digu Enriquek. Thatetarrak oso futbolzaleak dira eta Gerd Muller eta Daniel Ruiz Bazán *Dani*, Municheko Bayern taldeko eta Athleticeko futbolari mitikoak, omentzen dituen lagunarteko taldea sortu zuten tabernan.

"Alemania hemen defendatzea gustatzen zait; eta Alemanian, Euskal Herria"

Oso ezberdinak gara euskaldunak eta alemaniarrak?

Ez pentsa! Nik Oihan Beltza ezagutzen dut batez ere, eta nik esango nuke nahiko antzekoa dela. Itsasorik ez du, baina baso berdeez josita dago, Euskal Herria bezala. Eta hango jendea ere oso harro dago bere lurrarekin, oso sustraisakonak ditu herrian, hemen gertatzen den moduan. Gastronomiari dagokionez, euskal sukaldaritza munduko onenetarikoa da, hemen denetarik dagoelako, eta gainera, oso goxo dago dena: okela, arraina, barazkiak... Euskal Herriko edozein tokitan ondo jaten da. Alemanian, aldiz, ez dute itsasoari lotutako ohitura gastronomikorik. Hala ere, okela zoragarria da: txerria, ehizakia... Esaten da Alemanian saltxitxak eta txerri-ukondoa baino ez dituztela jaten, baina hori ez da egia, beste gauza asko eskaintzen dituztelako. Gaur egun, Alemanian ere oso ondo jaten da.

Bilbon oso ezagunak zarete...

Bai. Ni naiz familiaren irudia, nolabait esanda. Normalean, ni saltxitxak egiten ibiltzen naiz, baina, egia esateko, gustatzen zait jendearekin harremanetan egotea. Nik primeran pasatzen dut, eta gainera, ona da negoziorako. Nik beti esaten dut gauzak disfrutatu egin behar direla. Bizitzako esparru guztietan, ilusioz eta poztasunez ibili behar da; horrela, gauzak hobeto aterako dira.

AIKOR! 142 I 2014ko azaroa
www.aikor.com

Horman gora

MIKEL GARCÍA I eskalatzailea

t: Gaizka Eguzkitza / a: M. G.

Mikel García sondikoztarrak 17 urte ditu eta Batxilergoa ikasten dabil Derioko institutuan. Bere adineko gazte arrunt bat ematen du, baina Mikel eskalatzaile trebea da. Iaz, txapeldunordea izan zen Euskadiko Txapelketan, eta munduko hormarik zailenak gainditzea da bere ametsa.

"Anaiaren bitartez sartu nintzen eskalada munduan. Hark 19 urte zituen orduan, eta nik, 13, eta berarekin eta bere lagunekin eskalatzera joateko esan zidan, Leioako kiroldegira. Hasiera batean, hilabetean behin joaten nintzen, baina gaur egun astean hiru edo lautan. Lau urte pasa dira eskalada egiten hasi nintzenetik. Anaiak utzi egin du eta haren lagunak zirenak neureak dira orain (kar, kar)". Eskaladak izugarri erakartzen du Mikel. "Alde batetik, horman gora zabiltzala duzun sentsazioak ez du parekorik; bestetik, beste kiroletan gertatzen ez den moduan, ez duzu beste inoren kontra jokatzen, zeure buruaren kontra baizik, eta hori oso zirraragarria da".

Mikeli natura, mendia eta altuera gustatzen zaizkio. Ez da harritzekoa, beraz, eskalatzailea izatea. Pilotak edo futbolak ez dute sondikoztarra erakartzen. Eskaladaz gain, *slackline* ere egiten du, hau da, orekari eustea arbola bitatik lotutako soka elastiko baten gainean. "Ahal dudanean, zinta hartu, eta parkera joaten naiz praktikatzera". Erortzeko beldurrik ez du gazte honek. "Eskalada segurua da: gauzak ondo egiten badira, ez dago arriskurik. Nik ez dut inoiz istripurik izan".

Mikel García batez ere azken bi urteotan murgildu da eskaladan. "Astean zehar, rokodromoan entrenatzen dugu, eta asteburuetan kanpora joaten gara, naturak eskaintzen dituen hormetara". Autoaren arabera. "Autoz joaten bagara, Gaubea, Araban, eta Galdames gustatzen zaizkigu. Bestela, Baltzolara, Dimara joaten gara, baina ia ordu bi ematen ditugu garraiobide publikoetan haraino heltzeko. Gidabaimena ateratzeko irrikan nago! (kar, kar)". Leku berriak deskubritzea izugarri gustatzen zaio eta ezagutu duen azkena Rodellar harana da, Huescan. "Leku zoragarria da eskalatzeko: haranaren erditik ibaia doa, eta inguruan, hainbat horma ikaragarri. Egun osoa eman genuen eskalatzen eta gero errekan freskatu ginen".

Munduan hainbat leku eder daude eskalatzeko, baina eskaladaren gunea Yosemite parkea da, Kalifornian, Estatu Batuetan. "Hara joatea itzela izango litzateke. Entzun dudanaren arabera, Alpeak ere ez dira makalak, hormak oso luzeak baitira".

"Eskalada izugarria da: horman gora zabiltzala duzun sentsazioak ez du parekorik"

"Hemen ez dago eskaladan egiteko instalazio onik; ea Udalak animatzen diren zerbait egitera"

Mikelek ametsetan jarraitu du. "Niri Pou anaiek egiten dutena egitea gustatuko litzaidake. Horiek mundu osotik bidaiatzen dira eta hormarik zailenei egiten diete aurre. Baina horretarako munduko onenetariko bat izan behar zara eta nik ez daukat hain maila altua".

Mikel ez da izango munduko eskalatzailerik onenetakoa, baliteke, baina sondikoztarra ez da atzean geratzen. Esate baterako, iaz Euskadiko Txapelketan bigarren postua eskuratu zuen 18 urtez azpiko kategorian. "Lagunekin joan nintzen esperientzia bizitzera eta ondo pasatzera, beste asmorik gabe. Oso pozik bukatu genuen txapelketa, ez genuelako espero hain emaitza ona lortzea. Euskadin eskalada egiten dugunak nahiko gazteak gara eta batzuek oso maila ona dute. Esate baterako, Mikel Linazisorok 14 urte baino ez ditu, eta zortzigarrena izan zen Munduko Gazte Txapelketan".

7C+

Mikelek lehiakide indartsuak ditu, baina horma da berari interesatzen zaion gauza bakarra. "Lehen, garrantzia ematen nien txapelketei, baina orain, egia esateko, horma zailak gainditzea baino ez daukat buruan. Eta ahal den neurrian, baita neure maila hobetzea ere. Gaur egun, 7C+ mailan nago, eta 9ra ailegatu nahiko nuke. Horretarako, gogor entrenatu behar dut". Helburu hori lortzeko, ziurrenik lagungarria izango litzateke entrenatzaile baten aginduak jasotzea, baina Mikelek ez du hartu nahi horrek eskatuko lukeen konpromisoa. "Ni erabat autodidakta naiz, eta nahiago dut lagunekin ibili eta hormak geure kabuz eskalatu. Etorkizunari begira, aldiz, gerta daiteke entrenatzaile batekin aritzea, zergatik ez, horrek aurrera pausoa emango lidakeelako, baina oraingoz ondo nabil lagunekin".

Mikel oso gaztea da oraindik, eta auskalo zer ekarriko dion bizitzak. Oraindik ez du erabaki datorren urtean zer ikasiko duen. Bitartean, eskaladaz gozatzen dabil, nahiz eta horretarako Txorierritik kanpo joan behar duen. "Txorierrin ez dago instalazio onik entrenatzeko, eta Leioakoa da gertuen dudana. Derion badago rokodromo txiki bat, baina ez da oso aproposa. Larrabetzun ere badago pareta bat, eta, oso ondo dagoen arren, apur bat urrun daukat. Gainera, ez du argi artifizialik, beraz, neguan, goiz iluntzen duenean, ezin da entrenatu. Ea Udalak animatzen diren zerbait egitera".



Txorierriko gazteek indarkeria sexistari buruz duten pertzepzioaren diagnostikoa

Berdintasuna lortzeko eta emakume-enganako indarkeriaren aurka era eraginkor batean lan egin ahal izateko, beharrezkoa da landu nahi den errealitatea ezagutzea. Horrela, bada, Txorierriko Mankomunitateko Berdintasuna Sailak eskualdeko gazteek indarkeria sexistari buruz duten pertzepzioa ezagutzea eduki du helburu, errealitate hori benetan alda dezaketen programak ezarri ahal izateko.

Gogoratu behar da genero-rolek eragina dutela gazteen arteko bikote-harremanetan eta, oro har, maitasun erromantikoaren topikoa eta sineskeria oso barneratuta dutela. Maitasuna ulertzeko era desitxuratu horretan ia guztia onartzen da, maitasunagatik hain zuzen ere egiten dela arrazoituta. Sineskeria batzuk daude: laranja erdiaren mitoa (haren arabera, gure beste erdia, hau da, gure arima bikia, topatzen dugunean baino ez dugu lortuko pertsona osoak izatea eta bizitza betea edukitzea), jelosiaren mitoa (jelosia maitasunarekin nahasten da eta, gainera, egiazko maitasunaren nahitaezko betekizuna ere baden ustea dago), esklusibotasunaren eta fideltasunaren mitoa ("egiazko maitasunak" dena ematea eskatzen du, autonomia galtzea, eta jabetza eta esklusibotasuna exijitzen ditu), eta azkenik, guztiahaltasunaren mitoa ("maitasunak edozer gainditzen du" eta maitasuna nahikoa da arazo guztiak konpontzeko).

"Kezkagarria da gazteek aitortu izana euren inguruan ohikoa dela bikotea kontrolatzea"

Mankomunitatearen helburua izan da ezagutzea mito horiek zein puntutaraino eragiten duten bikoteengan eta emakume eta gizonen arteko harremanak ikusteko moduan. Horretarako, diagnostiko bat egin da eta ikusmolde hori kuantitatiboki zein kualitatiboki neurtu egin da.

Lehenengo fasean, galdetegi bereizi bat banatu da 15 urtetik eta 19 urtera bitarteko neska-mutilen artean. Galderen bitartez gazteek indarkeria bezalako zenbait jokabideri buruz duten pertzepzio-maila (txikia, ertaina edo altua) ezagutu nahi izan da, baita pertzepzio horren intentsitate-maila ezagutu ere. Hau da, zeintzuk diren indarkeria bezala errazen identifikatzen dituzten jokabideak edo jarrerak (mespretxua eta hertsadura, kontrola eta menperatzeko nahia edo abusu emozionala). Institutuan, 61 neskak eta 54 mutilek bete zuten inkesta, eta Politeknikan, 54 mutilek eta 23 neskak.

Guztira 346 gaztek hartu dute parte: 149 neskak eta 197 mutilek.

Osagai arruntak

Bigarren fasean, 11 eztabaida-talde antolatu ziren eta erantzunetan sakondu zen, zehatz-mehatz, indarkeria-jokamoldetzat jo ez zituzten edo oso intentsitate txikikotzat jo zituzten erantzunetan.

Emaitzak aztertu ondoren, neskek eta mutilek indarkeria modu erabat ezberdin batean ikusten dutela atera dezakegu ondorio. Ez diete larritasun-maila bera ematen aurkeztutako jokamoldeei, eta gainera, ez datoz bat euren iritziak azaltzean, ez indarkeria-jokamoldeak identifikatzeko orduan, ez horiek justifikatzeko orduan.

Ikusten den indarkeria begi-bistakoa eta argiena da, errazen antzematen dena. Indarkeria leunagoa den egoeretan, jokamoldeak ez dira larritzat jotzen, edo ez dira indarkeria-jokamoldetzat hartzen, besterik ez. Hain larritzat jotzen ez diren jarrerek lotura dute abusu emozionalarekin, manipulazioarekin, axolagabetasunarekin, jelosiarekin eta kontrolarekin.

Horiek indarkeria-jokamoldetzat ez jotzeak edo larritzat ez jotzeak adierazten du, neska-mutilentzat, osagai arruntak direla bikote-harremanetan. Bestalde, kezkagarria da aitortu izana euren inguruan ohikoa dela bikotea kontrolatzea, telefonoaren bitartez nahiz gizarte-sareen bitartez, edo aldiro non dagoen jakinda. Halaber, kezkagarria da genero-rolak inoiz zalantzan ez jartzea. Diagnostiko osoa Mankomunitatearen webgunean dago eskuragarri.

EUSKARAREN EGUNA TXORIERRIN 2014

AURTEN LOIUN

azaroak 28 ostirala

ARGAZKI ERAKUSKETA
Aurreko mendeko argazkiak
19:00-20:30 / Liburutegian

azaroak 29 larunbata

ERMITAZ ERMITA
Martiartu–Loiu. Berbalagunekin irteera
9:30-12:30 / Udaletxe aurrean

TRIKI-POTEOA
12:30-14:30 / Udaletxeko plazatik

ARGAZKI ERAKUSKETA
Aurreko mendeko argazkiak
13:00-15:00 # 18:00-19:00 / Liburutegian

TXITXIBURDUNTZIA
13:30-14:30 / Liburutegiaren aurrean

GAZTE BAZKARIA
Apuntatzeko: loiukobakarrak@gmail.com
Prezioa: 10 €
Epea: 24ra arte
14:30 / Elizako portikoan

EUSKAL JOLASAK
17:00 / Udaletxeko plazan

BERTSO SAIOA
Jone Uria, Sustrai Kolina,
Igor Elortza, Alaia Martin.
Gai jartzaile: Iñaki Beitia
19:00 / Frontoian

TABERNA IBILTARIA
Kalez kale
20:15 / Frontoitik hasita

azaroak 30 igandea

TAILERRAK
Taloa eta Twister erraldoia
11:00-12:30 / Kultur Etxean

TXARLESTRUP IKUSKIZUNA
Zirika Zirkusen eskutik
12:30-13:30 / Frontoian

ARGAZKI ERAKUSKETA
Aurreko mendeko argazkiak
12:00-14:00 / Liburutegian

abenduak 3 asteazkena

EUSKAL HERRIKO ALTXORRETAN BARRENA (BIZIKLETAN)
Hitzaldi-dokumentala
19:00 / Liburutegian

ESKOLAK

abenduak 1 astelehena

PATXIN ETA POTXIN PAILAZOAK
4-5-6 urtekoak
9:30-10:30
11:00-12:00

abenduak 2 astearte

ERIZ MAGOA
7-8-9 urtekoak
9:30-10:[illegible]
11:00-12:00

abenduak 3 asteazkena

BAT-BATEAN EMANALDIA
Oscar Estanga eta Uxue Alberdi
10-11 urtekoak
9:30-10:30
11:00-12:00

abenduak 4 ostegun

ERDALDUN BERRIEN KLUBA
Antzerkia
15-18 urtekoak
11:45-12:45
13:15-14:15

Txorierriko Mankomunitatea

Euskal Jaurlaritza Gobierno Vasco

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia

AIKOR! 142 I 2014ko azaroa
www.aikor.com

Emakumezkoen eskuetan

TXOKOAN EMAKUME PELOTARIEN ALKARTEA

Emakumezkoek betidanik jolastu dabe pelotan, baina tradizionalki erreminta erabili dabe. Guztioi etorten jaku burura *erraketisten* adibidea, XX. mendeko hasieran paleagaz jokatzen eben neska hareek. Aspaldian desagertu ziran, eta lekukoa Larrabetzun hartu dabe, baina pala barik. Igaz, ama batzuk Txokoan emakume pelotarien alkartea sortu eben, emakumezkoek osatutako Euskal Herriko esku-pelotako lehenengo taldea.

7t/a: Gaizka Eguzkitza

"Igazko Gabonetan pelota topaketak egon ziran Larrabetzun, Olarreta pelota eskola bultzatzeko, eta guraso eta umeak batu ziran bertan. Haurren artean neskak eta mutilak egozan, baina guraso taldean, gizonezkoak bakarrik. Eta amok pentsau genduan: zergatik ez dago emakumezkorik? Eta batzuok erabagi genduan geuk be jolastu behar genduala". Mari Carmen Zubiaur Txokoan emakume pelotarien alkartearen sortzaileetako baten berbak dira. Mari Carmenek 46 urte ditu eta txikitan pelotan olgetan eban Lezaman. Orain antxinako zaletasuna berreskuratzeko aukerea sortu jako. "Pelotea droga bat bezalakoa da, harrapau egin nau".

Eta bera ez eze, beste neska batzuk be badagoz harrapauta. Izan be, lehenengo urtean zortzi neska hasi ziran taldean; aurtengo ikasturtean, postera, 21 emakume dagoz. Izugarrizko arrakastea, oso denpora tarte txikian. Joanes Kamara nesken entrenatzailea da eta, bere ustez, taldean dagoan giro polita da gakoa. "Neskek kirola egiten dabe, eta bide batez, barreak egiten dabez eta, oro har, primeran pasetan dabe. Aisialdiaz lagunen artean disfrutetera etorten dira taldera, beste asmo barik".

"Pelotea droga bat bezalakoa da, harrapau egin gaitu"

Holan da, neskek ez dabe profesionala izateko grinarik adierazo, baina argi dago Txokoan alkartea erabat aitzindaria dala. "Zerbait historikoa da, senior kategoriko emakumezkoei zuzenduta dagoan esku-pelotako talde bakarra dalako. Emakumeen bardintasunari jagokonez aurrerapausua da, bai horixe! Historikoki, neskek pelotan jolastu dabe, bai, baina normalean erremintea, palea, erabili dabe, baina bertan ez, taldekideek eskuz jolasten dabe", esan deusku Joanesek. "Ez dogu pentsetan aitzindari garanik, ez ezer, baina taldeak argi ixten dau emakumeok be kirola egin ahal dogula eta horretarako, ez dala ezer berezirik behar: ez ekipajerik, ez ezer. Pelota bat hartu eta kitu!", dino Mari Carmenek.

"Taldea historikoa da: senior kategoriko emakumeen esku-pelotako talde bakarra"

AIKOR! 142 I 2014ko azaroa
www.aikor.com

"Hasieran ez neban pentsau bereziki taldearen esangureari buruz, baina hainbat aldizkaritan-eta atera garanez, apurka-apurka barneratu egin dogu. Argi dago zerbait aitzindaria dana, baina gu ez gagoz horregaitik taldean. Gu ondo pasetara eta kirola egitera baino ez gara etorten", esan deusku Ane Baraiazarra taldekideak. Anek 23 urte ditu, eta gazteenetarikoa da. Txikitan pelotan jolasten eban Larrabetzuko Olarreta eskolan, baina 14 urtegaz olgetari itxi egin behar izan eutson. "Hasieran mutilakaz jolastzen dozu, baina nerabezaroa datorrenean, mutilak zu baino indartsuagoak dira eta ezin dozu euren kontrako lehian sartu".

Taldea gura dauenari dago zabalduta eta ez dago kideen profil zehatzik, mota guztietako emakumezkoek osatzen dabelako. Gehienak Larrabetzukoak dira, eta adinari jagokonez, 17 urte 46 urte bitarteko neskak dagoz. Ainhoa Alaiogoikoak, esate baterako, 39 urte ditu eta aurten, urrian, hasi da taldean. "Koadrilako lagunen bidez sartu nintzan taldean. Ez dot inoz pelotan jolastu, baina izugarri gustetan jat. Gogorra da, eskuetan mina dodalako eta entrenamentuak leherleher eginda bukatzen dodazalako, baina

Emakumezkoek eskunarruak erabilten dabez, eta pelotak bigunagoak dira

Beste nesken talde bat sortu eben Iruñean, udan, Larrabetzuko taldekide baten bidez

hurrengo astea noz etorriko irrikan nago (kar, kar)".

Metodologia berbera

Neskak astean behin batzen dira entrenetako eta bertan, Joanesen laguntzagaz, hainbat gauza ikasten dabez: zelan emon peloteari, zelan jakin nora joango dan pelotea... Ikasten daben guztia da garrantzitsua, bai lesinoak ekiditeko, bai pelotarien maila hobetzeko. Entrenamentuak egiteko orduan, Jonesek ez dau desbardintasunik igarri mutilen eta nesken artean. "Metodologia bardintsua da, baina egia da neska batzuk ez dabela inoiz pelotan jolastu, edo aspaldian ez dabela jolastu. Kirol baten txikitatik aritzen bazara, teknikea eta taktikea barneratzen ikasten dozu, baina heldua zarala hasten bazara, zerotik hasi behar da. Baina neskak moldatu egiten dira".

Esku-pelotariak diran mutilakaz alderatuta, neskek daben araudia eta frontoiaren neurriak bardinak dira, baina materiala ez, ostera. Emakumezkoek eskunarruak erabilten dabez batzuetan, eskuak babesteko, eta pelotak bigunagoak dira. Janzkerea be ez da bardina. "Hasierako partidetan ez genkian neskek gonea ala prakak eroan behar ebezan eta azkenean erabagi genduan bakotxak gura dauena egitea. Horrek, nahiz eta garrantzirik ez euki, kezkea sorrarazo eutsen emakumeei (kar, kar)", dino Joanesek.

Momentuz entrenamentuak eta euren arteko partidak baino ez dabez egiten, inguruan klub gehiagorik ez dagoalako. Udan talde bat sortu zan Iruñean, Larrabetzuko taldekide baten bidez. "Iturbide familiakoek izugarrizko laguntza emon deuskue. Eurek, jatorriz, nafarrak dira eta izugarrizko zaletasuna dabe pelotarako. Paulak gugaz jolasten dau, eta Iruñean Ruth ahiztak eta gurasoek sortu eben taldea. Udan hara joan ginan eta jaialditxu bat antolatu genduan eurekaz, eta gero nafarrak hona etorri ziran Larrabetzuko jaietan", azaldu deusku Mari Carmenek.

Bizkaiko Federazinoak babesa eskaini deutsie aurrera egiteko eta, antza danez, beste kluben bat sortzen saiatzen dabilz Arratia aldean. Hori gertatzen dan bitartean, Larrabetzuko neskek jarraitu egiten dabe peloteari emoten eta, ahal dan neurrian, emakumeen esku-pelotea lau haizeetara zabaltzen. Esate baterako, azaroan, Zamudioko jaietan jialdia eskaini eben. "Ea hango neskaren bat animetan dan eta gugaz jolastera datorren. Edo are gehiago, ea neska bat baino gehiago diran eta bertan be talderen bat sortzen daben!", aitatu dau entrenatzaileak, itxaropentsu.

AIKOR! 142 | 2014ko azaroa
www.aikor.com

"Poeta-etorria baduzu, beti dituzu argudioak"

FERNANDO ZAMORA | poeta

Derioztarrak *Sonetos de mi vida* antologia eman zuen argitara irailean, eta dagoeneko lanaren bigarren edizioa atera du Ediciones Beta argitaletxeak.

t/a: Itxaso Marina

Zer topatzen dugu *Sonetos de mi vida* liburuan?

Nik 3.000 poema inguru ditut idatzita eta horietako 300 sonetoak dira. Berrogeita hamabost aukeratu, eta lan honetan bildu ditut. Guztiak argitaragabekoak dira, bost izan ezik, aurretik argitaratuta banituenak. Sonetoak hiru zatitan daude banatuta: lehenengo zatian erromantizismoa landu dut; bigarrenean, egunerokotasuna; eta hirugarrenean, pertsonei edo erakundeei buruz idatzi dut.

Sonetoa poesia-konposiziorik zailena omen da…

Zorrotz bete behar diren arauak ditu eta oso ondo idatzi behar da; osterantzean, akatsak oso nabariak direlako. Baina ondo konposatzen bada, oso pieza ederra da Literaturarena. Ez dakit musikarekin dudan harremanagatik den, edo delineazioa eduki dudalako ogibide eta horrek eragina izan duelako, baina garrantzia estetikari eman diot beti, eta ez edukiari.

"Hobetzen saiatu naiz beti; aholkua onartzen duen gizona naiz ni"

Gainera, oso perfekzionista naiz: sonetoak arauak bete behar ditu, bai, baina arina ere izan behar da.

Liburuan Emiliano zure anaiari eskaini diozun soneto bat irakur dezakegu. Poesiarako grina berarengandik datorkizu, ezta?

Bai, bera ere bada poeta, eta artzaina. Umea nintzenean berak idazten zituen poemak errezitatzen nituen, eta horrek animatu ninduen idaztera. Emilianok Bilbon egin zuen soldaduska eta berak eman zidan bidea hona etortzeko delineazioa ikastera. Hamazazpi urte nituela etorri nintzen Bilbora, eta bertako zirkulu poetiko-literarioetan hasi nintzen murgiltzen. Eta hemen gelditu nintzen, gaur egun arte.

Hiru poesia mota lantzen duzu.

Erromantikoa, soziala eta umorezkoa.

Zeintzuk dira zure inspirazio-iturriak?

Nire ustez, poeta-etorria baduzu, beti dituzu argudioak. Gai bati buruz hamaika aldiz idatzi duzu, beharbada, baina, ziur asko, beste era batetik helduko diozu hurrengo aldian. Nik inoiz lauzpabost poema ere idatzi ditut egunean… Oso moldakorra naiz eta inspirazioa bakean zein gudan topa dezaket. Baina egia da inguruak eragina duela, zure gogo-aldarteak ere bai… Esate baterako, behin Sukarrietara joan nintzen idazteko esan zidaten poema baterako inspirazio bila, eta hain gustura egon nintzen, hain da polita hango ingurua… ezen bost poema

"Elkarteko gizona"

Fernando Lorenzo Gómez La Hiniesta herrian, Zamoran, jaio zen 1940. urtean. Bizkaira 17 urte zituela etorri zen. Bere poemak Fernando Zamora ezizena erabilita sinatzen ditu. "Bilboko egunkari batek eskatu zigun ezizen bat asmatzeko, gure poema batzuk argitaratzeko asmoa zuelako. Jaio nintzen herriaren izena ipintzea erabaki nuen nik".

Bere lehenengo liburua, *Sembrando versos*, 1978. urtean kaleratu zuen eta handik hona beste zazpi lan idatzi ditu: *Luna y mar* (1980), *A golpe de poema* (1982), *Cárcel de espuma* (1987), *La vida en broma* (1989), *Tiempo de amor* (1994), *Ese algo más* (2004), eta *Sonetos de mi vida* (2014). Lan horietako batzuk finalistak izan dira poesia-lehiaketetan; *Cárcel de espuma*, esate baterako, finalista izan zen Eusko Jaurlaritzako Alonso de Ercilla lehiaketan. Beste

poeta batzuekin batera ere hartu du parte hainbat antologiatan, hala nola *Veintitrés voces para un poema* (1976), *Páginas de interior* (1988) eta *Intersección poética* (2007).

Zamora Aralar Poesia-Literatura Elkartearen sortzaileetako bat izan zen 1973. urtean, eta 1975. urtetik Asociación Artística Vizcaína elkartearen kidea da. "Elkarteko gizona" dela dio, idazteko orduan bakardadea nahiago duen arren, besteengandik ikastea gustatzen zaiolako. Derion 51 urte daramatza, ia bizitza osoa. "Zorte handia izan dut oso ondo hartu nautelako, jaietako pregoia bi aldiz eman dut, errezitaldiak eman ditut herrian, nire liburuak aurkeztu… Oso pozik nago Euskal Herrira etorri izanarekin".

"3.000 poema inguru ditut idatzita, eta 300 poesia-errezitalditan baino gehiagotan aritu izan naiz"

idatzi bainituen. Eta beste batzuetan, noski, Estatuan dugun lapur-koadrila honekin zer gertatzen ari den ikusten duzu, adibidez, eta umorezko poema bat idatzi beharrean, bada, negar egiteko gogoa eta haserrea duzu.

1976. urtean hasi zinen poesia idazten. Zein esango zenuke izan dela urte hauetan eduki duzun bilakaera?

Hobetzen saiatu naiz beti. Asko irakurtzen dut eta interes handia dut besteen lanetan, poesia-munduaren bilakaera zein den jakiteko, zeintzuk diren joera berriak… Eta bila nabil beti, ea zerbait topatzen dudan. Uste dut *Cárcel de espuma* nire libururik onena izan zela, nire idazteko gaitasunari dagokionez muga jo nuela… Baina, noski, alde handia dago gero, zure ustez zentzua duenaren eta besteek baloratzen dutenaren artean. Horren haritik aholkua beti onartu duen gizona naiz ni, kritika gustatzen zait, konstruktiboa bada.

Poeta ez ezik rapsoda ere bazara.

Bai, 300 poesia-errezitalditan baino gehiagoetan hartu dut parte. Gainera, zorte handia dut, nire emazteak be poesia ozen irakurtzen duelako, eta elkarrekin 70 emanaldi baino gehiago egin ditugulako.

Zaila da?

Bai, baina oso ederra aldi berean, aktoreek egiten duten moduan, konposizioari egileak buruan eduki duen zentzua eman behar diozulako. Puntuaziomarkarik erabiltzen ez duten idazleen lanak irakurri behar direnean, askoz zailagoa da. Eta arriskutsuagoa, egileak nahi zuen zentzua ez ematea gerta daitekeelako.

Eta zaila da poesia argitara ematea?

Zaila da argitaletxe batek zure lana kaleratzea lortzea, baina dirua izanez gero, edonork argitara dezake, autoedizioari esker. Eta gero liburuak saltzea, ba hori, beste kontu bat da.. Hala ere, aipatu behar da, bakar batzuen kontua den arren, zuzenean egiten den poesiak arrakasta handia duela. Horrela, bada, edozein egunkari zabaldu eta agendan ikusiko dituzue bizpahiru errezitaldi egunero. Publikoa oso fidela da eta jendetza batzen da aurkezpenetan, emanaldietan… Baina saldu, gutxi saltzen da.

AIKOR! 142 | 2014ko azaroa
www.aikor.com

"Katalanak pozik dagoz, euren beharra fruitua emoten ari dalako"

t: Itxaso Marina / a: A. R.

AINTZANE RAMOS URIBE | mediku-bisitaria

Zamudioztarrak zuzenean bizi izan dau Azaroak 9 Katalunian, eta horren inguruan egon dan ilusinoa, eztabaidea eta beharra. Hilabete bakan batzuk daroazan arren bertan , arazo barik egin da inguru barrira.

22,25 milioi boto-emaile; % 80ak, independentziaren alde. Sorpresarik?

Bada, azken Diadak zenbat jente mobidu eban ikusita, eta ezezkoaren aldekoak bozkatzera joango ez ziranez, espero genduan emaitzea da. Dana dala, nire ustez, emaitzea ez da inportanteena, botoa emotea baino, herriak bere etorkizuna erabagiteko eskubidea izan dagiala. Nire inguruko gehienak independentistak dira eta, beraz, oso pozik dagoz. Baina pozik, bizi izan daben esperientziagaitik. Lagun bat, esate baterako, boluntario ibili zan hauteskunde-mahai baten, Bartzelonan. Kontau deust aitita-amama asko joan zirala bozkatzera, erdi negarrez eta hunkituta. Horixe da balio dauena, jentearen sentimentuak.

Botorik emon zenduan zuk?

Bai, baina ez Azaroaren 9an bertan, nortasun-agirian oraindino Zamudioko helbidea daukadalako. Erroldan gagozanok aukerea euki genduan galdeketea egin eta handik 15 egunetara botoa Govern-eko delegazioetan emoteko.

Zelan izan da galdeketearen inguruko giroa?

Beno, Katalunian bost hilabete baino ez daroadaz, baina ikusi dot Azaroak 9a guztien ahotan egon dala egunero, komunikabideetan, kalean... Ez da beste gauza gehiagoren ganean berba egin. Jente asko joan da manifestazinoetara, baina nasaitasunez, eta ez da istilurik egon. Boluntario asko ibili dira beharrean kontua aurrera atera ahal izateko, mutil-laguna eta biok be bai. Galdeketak egiten ibili gara eta jenteak beti erantzun dau errespetu handiz, bai alde batekoek, bai beste aldekoek. Lehen esan bezala, lagun gehienak independentistak dira eta pozik dagoz, ikusten dabelako euren beharra frutua emoten ari dala. Izan be, hau guztia herritarrek eurek eraiki dabe.

"Emaitzea ez da inportanteena, herriak bere etorkizuna erabagiteko eskubidea izatea baino"

Fiskaltzak igarritako kereilea alde batera itxita, zer espero dozue?

Hauteskunde plebiszitarioak egongo diran ustea dago; hau da, alderdiek independentziaren aldekoak edo kontrakoak diran adierazoko dabe euren programetan, eta hauteskundeak nork irabazi, ba orduan baietzak edo ezetzak irabaziko dau. PP-k hurrengo hauteskundeetan gehiengo osorik ez izatea be espero da, ea halan benetako erreferenduma egin ahal dan, Eskozian moduan. Urteten dana errespetauko da, baietza zein ezetza, jenteak gura dauena bere etorkizunaren gainean erabagi ahal izatea dalako; eta ez kanpotik inposatu deieela. Luzera joko dauen kontua da, baina behar eginez lortuko dogu.

Gaia aldatuko dogu arretea zugan ipinteko. Zergaitik familia, lagunak... itxi, eta Castellfollit del Boix herrira (Bartzelona) joan?

Mutil-laguna eta biok Zamudion ezagutu genduan alkar. Castellonekoa dan arren, Katalunian bizi zan eta, urteak aurrera joiazala, pentsau genduan erabagi bat hartu behar genduala. Baso-funtzionarioa da eta behar finkoa daukanez, zalantzarik ez: Pris, nire txakurra, koiu eta Kataluniara.

Gatxa izan da?

Ez dot esango erraza izan danik, baina ez jat asko kostau, neska ausarta nazalako eta aldaketei bildurrik ez deutsedalako. Ganera, beharra be banebala etorri nintzan hona. Gatxena jentea itxi behar izatea izan da. Lagunek agur-afari bat egin eusten eta argazkiz osatutako koadru bat emon eusten oparitzat. Ezin neutsen malkoei eutsi... Familia eta lagunen faltea sentiduten da, baina ama inoz etorri jat bisitan, baita lagun batzuk be. Gainera, WhatsAppagaz-eta gertu gagoz gaur egun. Nahiko zabala naz eta koadrilatxua egin dot. Katalana ia-ia menperatuta daukat eta ohitura barriei jagokonez, "zer ikusi, ha ikasi" dino esaera zaharrak. Beraz, tabernara joaten garanean bakotxak berea ordaintzen dau, eta kitu (kar, kar).

Zelangoa da bizi zaran herria?

Oso herri txikia da, 400 biztanle dauz eta errepidea bertan amaitzen da. Mendian gagoz, Montserrat menditik gertu, Katalunia zentrala deritxon lekuan. Ez dago ezer, arrautzak saltzen dituan emakume bat baino ez, eta taberna bat, asteburuetan bazkariak-eta emoten dituana. Jaiak izan ziran irailean eta herritarrak ezagutu genduazan, alkate jauna be bai. Jente jatorra da, herrikoia. Bizitzea nasaia da hemen, asteburuak kirola egiten emoten doguz, korrika egiten, bizikletaz ibilten... Perretxikotara be joaten gara, asko dagoz aurten!

Zertan egiten dozu behar?

Mediku-bisitaria naz eta kriogenia arloan zilbor-hesteko ama zelulakaz dabilen enpresa baterako egiten dot behar. Egunen baten gaixotasunen bat izan ezkero, ama zelula horreek erabili ahal dira eta nik aukera horren barri emoten deutset emaginei, ginekologoei eta familiei.

Zer da gehien gustetan jatzuna zure bizitza barritik?

Batez be bizi garen herria, nasaitasuna, mendiak ikustea... naturea beti izan dodalako gustuko. Hemen egoteak ez dauka parekorik. Eta katalanen identidade-sentimentua be bai, hizkuntzagaz daben loturea. Gaztelania ia ez da entzuten. Gehienek, % 98k esango neuke, katalanez egiten dabe. Euren hizkuntza maite dabe eta nabaritzen da. Dana dala, gaztelaniaz egiten badeutsezu, gaztelaniaz be erantzuten deutsue. Begirune handia deutsee besteei, baina eurena defendiduz.

"Familiaz eta lagunez ganera, euria botaten dot faltan. Hemen ia ez dau euririk egiten!"

Eta gitxien?

Bartzelona. Bertan egiten dot behar. Oso handia da eta auto asko dagoz, jente asko, zarata handia... Gogaitu egiten nau. Bestela, katalanak oso serioak dira hasiera baten, eta hori deigarri egiten jat. Jarrera zabalagoa daukie gero.

Ezbardintasun askorik gure artean?

Uste baino gehiago. Hizkuntza propioa, identidade-sentimentua... daukaguz batzuk eta besteak, baina katalanak serioagoak dira; tabernetan alkartu be egiten dira, baina ez hainbeste, eta ez dabe koadrila-figurarik.

Noz etorri zara etxera azkenekoz?

Zamudioko azokarako. Saiatuko naz hilabete birik behin etorten, egun garrantzitsuetarako. Gabonetan joango gara barriro... Familia eta senideak botaten dodaz faltan, Zamudioko Kamara Koralean abestea, eta euria. Bai, euria, hemen ia ez dauelako euririk egiten.

Katalunian betiko?

Ez dakigu etorkizunak zer ekarriko deuskun, baina bai, asmoa berton bizitza-proiektua egitea da. Oso pozik bizi naz Katalunian.

LOREGARBI
GARBIKETA ZERBITZUAK
Garbi-ikuziak, orokorrean
Auzokoen komunitateak
Mantentzeko garbi-ikuziak
Bulegoak eta lokalak
Obra amaierako garbiketak
Ikastetxeak
Zabor bilketa
Besaide Plaza, 1 - B° Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net
Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

Consulting Sondika s.l.
Sabin Askolizaga
Aseguru agentea
Allianz
609 475 746
Mibiñe, 6 behea
48150 Sondika-Bizkaia
T.: 94 453 18 07
Faxa: 94 453 60 27

HARATEGIA · URDAITEGIA
VICTOR
ARTISAU-ELABORAZIOA
Okela ekoizten dugu: odolosteak, txorizoa, txistorra, solomoak...
Plater aurrekozinatu
Goiri, 4 - 48150
Sondika - Bizkaia
94 453 16 17

AIKOR! 142 I 2014ko azaroa
www.aikor.com

Euskerea, Txorierrin ozen

Aurten, Loiun egingo dira Euskerearen Egunari lotutako ekitaldiak. Egitarau zabala antolatu dabe hango eragileek eta Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko Euskera Zerbitzuak, eta azaroaren 28tik abenduaren 4ra bitartean aukerea eukiko dogu bertan euskerea ardaztzat daukien hainbat ekintzaz disfrutetako. Esate baterako, musikea, bertsolaritzea eta antzerkia.

t: Itxaso Marina

Aurreko mendeko argazkiak barikutik domekara arte egongo dira ikusgai liburutegian. Erakusketea 40 argazkik osatzen dabe, eta bertan herriko pertsonaiak eta irudiak batu ditu Loiu Laztana kultur alkarteak. Egun nagusia zapatua izango da. Goizean "Ermitaz ermita" mendi irteerea egingo da berbalagunen eskutik. Loiuko plazatik San Kristobal ermitara abiauko dira eta bidetik, besteak beste, Martiartu torrearen eta ermitearen eta Magdalena ermitearen historia ezagutuko dabe. Hitzordua 9:30etarako ipini dabe. Trikipoteoa be izango da zapatuan, 12:30ean; eta txitxi-burruntzia, gazteen bazkaria eta euskal jolasak. Iluntzeko 19:00etan, bertso-saioa, eta frontoian honeek arituko dira norgehiagoka: Jone Uria, Sustrai Kolina, Igor Elortza eta Alaia Martin. Saioa amaitzen danean Taberna Ibiltariak hartuko dau lekukoa. Handik hasi eta kalez kale ibiliko dira Loiuko bazterrak girotzen.

Domekan, talo tailerra egingo da, eta twister erraldoia. Tailerren ostean, *Txarlestrup* ikuskizuna eskiniko dau Zirika Zirkus taldeak. Txarlestrup oso banda berezia da: klake dantzatzen badakie, baita charleston be, eta akrobaziak egiten... Baina, publikoren laguntzarik beharko dabe? Hori Loiuko frontoira hurbiltzen bagara ikusiko dogu. Ikuskizuna 12:30ean hasiko da. Astelehenean, "Euskal Herriko altxorretan barrena" hitzaldi-dokumentala emongo da, 19:00etan, liburutegian. Dokumental hori Arkaitz Astiazarenk grabau dau. Astiazaran kirolaria eta abenturazalea da eta ezaugarri horreek abiapuntutzat hartuta, bizikletea hartu eta Euskal Herriko errepideetara atera zan, gure herriak daukazan altxorrak ezagutu eta grabetako asmoz. Bere esperientzia aitatutako dokumentalean batu dau.

Ohikoa danez, Txorierriko herri ikastetxeetako ikasleei zuzendutako ekintzak be antolatu dira. Patxin eta Potxin pailazoak, Eriz Magoa, *Bat-batean* emonaldia eta *Erdaldun berrien kluba* ikuskizuna. Uxue Alberdik eta Oskar Estangak zuzenduko dabe *Bat-batean* saioa eta musikea eta bertsoa buztartuko dabez bertan. *Erdaldun berrien kluba* ikuskizunak Irantzuren gora-beherak emongo deuskuz ezagutzera. Irantzu euskeraz pentsaten, sentiduten eta bizitzen dauan neskea da. Horrek hamaika azaro sortzen deutsotsaz bere egunerokotasunean.

Herrika

Euskerearen Eguna Loiun egingo dan arren, eskualdeko gainontzeko herrietan be antolatu dira ekitaldiak. Tximintx Derioko euskara alkarteak, esate baterako, ekitaldi berezia prestau dau abenduaren 3rako. Azaldu deuskuen moduan, arratsaldeko 19:00etan "euskarearen argia" biztuko dabe herriko plazan. Hara joan beharko da ekitaldia zertan datzan jakiteko. Zamudion, *Irrien lagunak* ikuskizuna egongo da Lagatzu euskara alkarteak antolatuta. Saioa azaroaren 29an, 12:00etan, izango da Zamudiotorren.

Bestalde, Mikel Martinezek eta Patxo Telleriak *Desentxufatuak* antzezlana eroango dabe abenduaren 2an Lezamara. Ekitaldia Zorrizketan euskara alkarteak antolatu dau eta 19:00etan izango da Kultur Aretoan. Baina hori ez da euskera alkarteak aurten prestau dauan ekintza bakarra. Halan, hurrengo egunean, abenduaren 3an, *Elefante bitxia* txotxongiloikuskizuna izango da 18:00etan Ludotekan. Ikuskizuna Rosa Martinezena da.

Zorrizketan alkarteak galdeketa bat egin dau herrian, euskerearen erabilerea eta eskaintzea Lezaman zelangoa dan ezagutzeko. Era berean, herritarren eretxiak jasotzea eduki dabe helburu, alkartearen eginbeharrak hobeto ezagutzeko eta bere jarduerak egokitzeko. Galdeketearen emaitzak abenduaren 5ean, 19:30ean, emongo dira ezagutzera Uribarri Topalekuan. Ondoren, musika-saioa egongo da Daltondarrak taldearen eskutik, eta kopaua eskiniko da. Arte Ederretako ikasle lezamarrek "Euskeraz bizi gura dot" margolana egingo dabe abenduaren 1ean, 2an eta 3an, plazan. Eta "azoketako salerosle nomadak" kalejiran aterako dira abenduaren 5ean, 18:00etatik aurrera. Azken ekitaldi horiek biak Lezamako Gazte Asanblada antolatu dauz.

Loiun ez ezik, eskualdeko gainontzeko herrietan be ekitaldi-sorta zabala egongo da

Larrabetzun, *Sustraiak loratzen* txotxongiloen emanaldia eskainiko da azaroaren 29an, 18.00etan, Anguleri Etxean. Eta Kultura Bilgunea abenduaren 2an aurkeztuko da jente-aurrean. Kultura Bilgunea herriko hainbat kultura taldek osatzen dabe eta hareen artean Arrekikili euskera alkartea dago. Kultura taldeek euskerearen aldeko adierazpena egingo dabe ekitaldian eta horren ostean, kopaua eskiniko da. Ekitaldia Anguleri kultur etxean izango da 19:00etan. Hurrengo egunean, abenduaren 3an, *Euskara jendea* dokumentalaren bigarren zatia emongo da 19:00etan Angulerin be bai.

Euskerearen Nazinoarteko Eguna abenduaren 3an da. Eusko Ikaskuntzak 1949. urtean ezarri eban egun hori, eta Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaindiak 1995. urtean instituzionalizau eben.

AIKOR! 142 I 2014ko azaroa
www.aikor.com

Non, eta etxean bertan

Merkatari alkarteek hainbat kanpaina ipini dabez martxan, bezeroen fideltasuna saritzeko eta bertoko merkataritzea bultzatzeko.

Emoten dau atzo izan zala udako arropea gorde eta Gabonetarako oraindino asko geratzen zala pentsau genduanean. Halanda be, Gabonen atarian gagoz eta beste behin hasi beharko dogu aparteko erosketetan eta gastuetan pentsaten.

Gauzak argi daukaguzala ala idea barik gabilzala, hamaika aukera topaten doguz Txorierrin bertan. Bai, hamaika aukera, gure bailarea merkataritza-gune handia be badalako eta danetarik eskaintzen deuskulako. Gainera, etxean erosteak bestelako abantailak dakarguz, esate baterako, hurbiltasuna, kalidadea, tratu pertsonalizatua eta prezio onak; eta, aitatutakoa gitxi balitz, bertoko ekonomia pizten laguntzen dogu.

Liburuak, jostailuak, arropea, bitxiak, ile-apaindegietan eta edertasun-zentroetan gastetako bono-opariak, masajea, txakolina, lorak... eta bururatzen jakun guztia daukagu bertan eta gure esku. Otorduei begira egin beharreko erosketak be herriko janari-dendetan egin daikeguz, eta, era berean, gure jatetxe edo taberna gustukoenagaz ipini gaitekez harremanetan, hainbeste gustetan jakun pintxo edo plater hori prestau daiskuen. Baina, Txorierrin bertan erosteak askoz abantaila handiagoak daukaz oraindino be, gure merkatari alkarteek hainbat kanpaina ipini dabezalako martxan, euren bezeroen fideltasuna saritzeko eta herriko merkataritzea bultzatzeko.

Sondikan bertan alkarteak, adibidez, igaz asmatutako ekintza berari ekingo deutso aurten be bai. Azaldu deuskuen moduan, txartel batzuk banatuko dabez alkartearen barruan dagozan saltokietan. Txarteletan alkartearen izena ageri da, baina "berton" berbea osatu beharko da. Erosleek gitxienez lau euroko erosketea egin beharko dabe, eta, horren truke, hizki bat ipiniko deutsee txartelean. Halanda be, saltokiek ez dabez hizki guztiak eukiko, bakotxari bat egokituko jako. Halan, erosleak beste denda batzuetan be egin beharko dauz erosketak, berbea osatu ahal izateko. Berbea osatzen danean, txartela kutxa baten itxi beharko da, eta erosleak 250 euroko txeke baten zozketan hartuko dau parte. "Dirua alkartearen barruan dagozan saltokietan gastau beharko da. Igazko kanpainea nahiko ondo atera zan eta espero dogu aurten askoz hobeto joatea. Kanpainea urtarrilaren 5era arte egongo da indarrean eta irabazleari Erregeen Kabalgatan emongo deutsagu saria".

Lezama Saretzen alkarteak be erosketa-txartelak banatuko dauz bere bezeroen artean. Azaldu deuskuen moduan, saltoki bakotxean 20 euroko txartel bat zozketatuko da. "Sustapena alkartekide diran establezimendu guztietan egingo da. Erosleek zozketan parte hartzeko txartel bat jasoko dabe erosketa bat egiten daben bakotxean, eta ez da beharrezkoa izango gitxieneko diru-kopurua gastatzea". Txartela bete eta establezimendu bakotxean egongo den kutxan itxi beharko da. Zozketea abenduaren 22an izango da. Horrezaz gainera, saltokiak era berezian apainduko dira.

Bertan erosteko abantailak: hurbiltasuna, kalidadea... Gainera, herriaren ekonomia pizten laguntzen dogu

Beste alde batetik, eta Gabonetako kanpainatik kanpo, Lezama Saretzen alkarteak bezeroen fidelizaziorako txartel bat aterako dau laster. "Helburua erosketak herrian egiten dabezanak saritzea da. Gitxienez 20 euroko erosketea egin beharko dabe eta horreetako bat egiten daben bakotxean zigilu bat ipiniko jake txartelean. Bost zigilu lortzen dabezanean, bost euroko beherapena eukiko dabe hurrengo erosketan".

Guztiontzako onurea

Bizi Zamudio alkarteak opariak banatuko dauz bere bezeroen artean. Bezeroek gitxienez hiru establezimendutan egin beharko dabez erosketak eta guztira 100 euro gastetan badabe, bidaia-tapaki bat edo erosketarako orga bat emongo deutsee saritzat. Berrogeta hamar euro gastetan badabe, aterki tolesgarri bat. Sustapena abenduan zehar eta artikuluak agortu arte egongo da indarrean. "Erosketak gitxienez hiru saltokitan egin behar izateak dendari guztioi ekarten deusku onura, kanpainaz establezimendurik gehienak baliau ahal diralako. Gainera, erosketak alkartearen barruan dagozan gura beste saltokietan egin daitekez. Bezeroentzat be bada onuragarria, zozketarik egingo ez danez, opari segurua eukiko dabelako".

Danerik Paraje! Derioko merkatarien alkartea beharrean urte gehien dabilena da. Haren barruan dagozan negozioek jakin izan dabe herriko bezeroak ez ezik Txorierriko gainontzeko herritarrak be erakarten eta fidelizatzen. Euren ibilpide luzean hainbat kanpaina eta sustapen bultzatu dabe. Aurtengo Gabonei begira, 500 euroko bost txeke zozketatuko dabez alkartearen kideen saltokietan erosketak egiten dabezanen artean. Kanpaina derioztarrei zein txorierritar guztiei eta bisitariei, bertako enpresetako langileei... dago zuzenduta. "Kanpaina azaroan ipini dogu martxan eta abenduan be egongo da indarrean. Parte hartu ahal izateko, gitxienez alkartekideak diran hiru establezimendutan egin beharko dira erosketak eta bakotxean 10 euro gastau".

Txekeak zozketatzeaz gainera, erakusleihoen txapelketea be egingo dabe. "Gaia Gabonak izango da eta hiru sari emongo dabez: erakusleihorik landuena, argiztapen handiena dauana eta orijinalena. Era berean, kategoria bakotxean emon diran botoen artean bat aterako da, eta horrek 50 euroko txekea jasoko dau saritzat. Txapelketa irabazten dabenek diploma bana jasoko dabe". Txekeetako dirua alkarteko establezimenduetan gastau beharko da.

Diplomak eta txekeak abenduaren 29an, iluntzeko 8:30ean, Kultur Birikan egingo dan Gabonetako galan banatuko dira. "Oso berezia izango da. Kultur Birika dotore-dotore apainduko dogu eta ekitaldira Txorierriko alkarteetako eta erakundeetako ordezkariak konbidatuko doguz. Ikuskizunak be egongo dira".

Azaldu deuskuenaren arabera, halako kanpainak eta sustapenak antolatzea merezi dau eta beharrak badauka bere frutua. "Egoera ona ez dan arren, eta gero eta estuago bagagoz be, esfortzu bat egin gura izan dogu gure bezeroak eta euren fideltasuna saritzeko". Izan be, Txorierrin, etxean, erosteak badaukaz abantailak eta sariak. Jarraitu daigun, bada, gurea sustatzen, bailarako bizitzea dinamizatzen eta herria egiten.



AIKOR! 142 I 2014ko azaroa
www.aikor.com

Lezamako gazteria, pausu bat aurrera

Urriaren 25ean Txorierriko Gazte Topaketea egin zan lehenengo aldiz Lezaman, eta hango gazte asanbladea ibili zan anfitrioi. Lezamako Gazte Asanbladea orain dala gitxi sortu da herriko gazteek daukiezan beharrizanei eta kezkei erantzuteko. Horretarako, autogestinoa eta alkarlana erabiliko dabez.

t: Itxaso Marina / a: LGA

Hamar gaztek osatzen dabe Lezamako Gazte Asanbladea gaur egun, "baina gura dauanak zabalik ditu ateak, bere ideak, nahiak, kezkak... gugaz batera lantzeko". Azaldu deuskuen moduan, udan hasi ziran alkartzen, herrian gazte mobimendu baten beharra ikusten ebelako, "kultura, aisialdi, kirol... arloan. Horreei ikuspuntu barritzaile eta fresko bat emoteko". Besteak beste, bardintasuna, lana, etxebizitzea, euskerea, gazteen arteko harremanak eta auzolana apuntau dabez beren bide-orrian. Eratze-prozesuan, Txorierriko gainontzeko gazte asanbladen laguntzea euki dabe.

"Herrian ez daukagu adin ezbardineko gazteak batzeko tokirik, ezta ohiturarik ez", aitatu dabe. "Horren adierazgarria da 17 urteko gazte batek gitxitan daukala harreman zuzenik 23 urteko bategaz. Gainera, herri txikia garan heinean, batzeko eta alkar ezagutzeko premia ikusten dogu. Horregaitik Lezamako gazteok alkarregaz parte hartu geinken ekintzak eroan gura geunkez aurrera". Horri lotuta, gazte askok herrian ezer egitekorik ez dagoan ustea daukiela esan deuskue, eta herri handiagoetara edo Bilbora joaten dirala. "Baina gazteontzako eskaintzea guk geuk antolatu eta gestionau daikegula konturatu gara, ha geure esperientziatik sortu, gurean bizitasun gaztea berbizteko". Beste alde batetik, herriko beste alkarteek egiten daben moduan, Lezaman antolatzen diran ekitaldiei beren "ikuspuntu freskoa" be gehitzea gustauko litxakie.

Emakumeen eta gizonen arteko bardintasunaren alde lan egitea be badaukie helburu. "Gizartean eta gazteon artean be jarrera matxistak hartzen doguz konturatu barik. Portaera txikiak eta ia ikusezinak dira normalean, baina borrokatu beharrekoak. Guk jarrera feministe eta parekidea daukagu bardintasunerako bidean". "Arditxuak" ez dirala dinoe, dagona hartu eta men egiten dabenetarikoak. Euren interesak parrandan urtetatik eta edatetik baino harago doazala. "Jarrera kritikoa daukagu Lezaman, Euskal Herrian zein munduan gertatzen diran egoeren aurrean. Eta, ahal dogun heinean, era aktibo baten inplikauko gara geure ingurua hobetzeko".

"Gazteontzako eskaintzea guk geuk antolatu eta gestionau daikegu, ha geure esperientziatik sortu"

Euskerearen erabileraz be kezkatuta dabilz, Lezama herri euskalduna izan arren eta gehienek euskeraz jakin arren, euskera gitxi entzuten dalako gazteen artean. "Hizkuntzea gogoan daukagu uneoro; geure bilerak, esate baterako, euskera hutsean egiten doguz. Euskerearen aldeko ekintza zuzenak edo egitasmoak aurrera eroateko asmoa daukagu".

Inplikazinoa eta gogoa

Euren beharra aurrera aterateko, erremintatzat autogestinoa eta alkarlana erabiliko dabezala esan deuskue. Halan, ez dabe ekonomikoki eta ideologikoki inori lotuta egon gura, eta horregaitik ez dabe laguntza ekonomikorik eskatzen."Horrek

dakarren antolakuntza eta idea askatasunagaz", azpimarratu dabe. "Ez gagoz inongo botere politikoren interesen menpean eta guk geuk ezagutzen dogu zer dan gure onerako. Gainera, martxan ipiniko doguzan egitasmoek ez daukie diru-kopuru handien beharrik; trukean, inplikazino pertsonala eta gogoa eskatzen dabe". Beraz, alkarlana joten dabe garrantzitsutzat. "Gazteon arteko, herritarron arteko eta, noski, herriko alkarteen arteko alkarlana eta harreman estua".

Hasibarriak dira, baina hainbat proiektu daukiez buruan. Euskerearen Astearen haritik, esate baterako, ume, gazte zein helduei zuzendutako ekintzaren bat prestauko dabe, eta Gabon Zahar herrikoia antolatzeko asmoa daukie. "Datorren urtearen hasierari begira, hilabete internazionalista bat egin gura dogu. Aurrerapen moduan, esan daikegu gatazkan dagozan herrialdeetako hizlariak, musikariak, sukaldariak... ekarriko doguzala Lezamara, euren kulturaren zati bat hurbildu deiguen".

Lezamako Gazte Asanbladea ez da talde ez estatikoa, ez itxia; jente eta idea ezbardinetara zabalik dagoan egitasmo dinamikoa baizik. "Astero biltzen gara eta gugaz harremanetan jarteko hurbiltzea baino ez dago. Gainera, gizarte-sareen bitartez edo e-mailez edonork jo daike gugana". Urtean zehar, askotariko ekintzak antolatzeko asmoa daukie, asanbladako gazteei ez ezik herriko gainontzeko gazteei, umeei eta helduei be zuzenduta egongo diranak, halan nola dantza ikastaroren bat, liburuen aurkezpenak, kirol lehiaketak edo kontzertuak.

Lezaman, beraz, badago beste eragile bat, herriari ekarpen handia egingo deutsona, ziur asko. "Gazte asanblada batek beste gazte batzukaz ibilteko aukerea emoten deusku gazteoi, geure gogoa, eretxia eta jarrerea zuzenean adierazoteko aukerea, bitartekari barik. Kirol, kultura edo beste arlo batzuetako ekintzak antolatzeko ahalmena emoten deusku, konpromisoak geure gain hartuz".

Facebook: Lezamako Gazte Asanblada
@LezamakoGA
lezamakogazteasanblada@gmail.com

Gazte topaketea

Txorierriko I. Gazte Topaketak 150 lagun inguru batu zituan Lezaman. "Ez genduan horrelako erantzunik espero, ezta hainbeste eredu ezbardinetako lagunak batzea be. Horregaitik oso pozik gagoz". Inguruko herrietako gazteek bat egin eben lezamarrakaz, eta egun osoan zehar giro aparta egon zen herrian: trikipoteoa, bazkaria, antzerkia, olinpiadak, musikea... "Helburua Txorierriko gazteak biltzea eta geure arteko harremana sendotzea izan zan. Beste gazte topaketa batzuetan heziketea edo kultura izan daitekez helburuak, baina oraingo honetan ezinbestekotzat joten genduan adin eta joera ezbardinetako lagunek alkarregaz disfrutatzeko egun bat eskaintzea". Lezamako Gazte Asanbladak lehenengo pausoa emon dau eta harrerea itzela izan da. Zalantza barik, halan jarraituko dabe, pausoak aurrera emoten.

AIKOR! 142 I 2014ko azaroa
www.aikor.com

Gelditu ezinik gabiltza

Ikasturteak hasi baino ez du egin eta berbalagunok handik hona ibili gara, euskaraz ikasten, ezagutzen eta disfrutatzen. Momentuak argazkietan harrapatu ditugu, Berbalagun egitasmoak hamaika aukera eskaintzen dizkigula zuek ikusteko. Eta bide batez, gurekin batera euskaraz aritzera anima zaitezten. Hala izanez gero, badakizue zer egin.

BILBOKO ARTE EDERRETAKO MUSEOA

Urriak 23

Artea ikaragarri gustatzen zaigu eta horregatik ahal dugun guztietan joaten gara museora. Oraingo honetan bisita gidatua egin dugu hiperrealismoari buruzko erakusketa batera eta, besteak beste, John Baeder, Audrey Flack, Roberto Bernardi eta Raphaella Spence artisten lanak ikusi genituen bertan. Erakusketa ederra, benetan, koloretsua eta edonork ulertzeko modukoa.

HUMMM, ZE GOZO!

Urriak 25

Gozozale galantak gara, bai, ez dugu ezetz esango. Eta horregatik Mendaroko txokolate fabrika bisitatu dugu, han txokolatea egiteko erabiltzen duten prozesua ezagutzeko eta, zelan ez, beren kakaozko ahogozagarriak dastatzeko. Izan ere, hamaika motako txokolatea ez ezik bonboiak, trufak… ere egiten dituzte bertan. Guztiak gozo-gozoak, baina egia esan behar badugu, garestiak ere bai. Prezioak alde batera utzita, hango errota ikusi genuen martxan. Azaldu digutenaren arabera, hura da txokolatea egiteko gaur egun dabilen errota bakarra. Errota guztiz modernizatuta dago, baina kontatu ziguten antzina asto batek ipini zuela martxan eta gaiak errekatik jasotzen zituztela. Txokolatea artisau-eran egiten jarraitzen dute eta egunean 100 tableta ekoizten dituzte. Bitxikeria bat ere kontatu ziguten: lehen txokolate mota bi egiten zituzten, batak % 100eko kakaoa zuen eta dirudunentzat zen; bestea, nahikoa irin eta azukre zuen, eta txiroek erosten zuten. Fabrikatik atera eta ibilbide bat egin genuen ingurutik. Hala ere, kobazuloraino ez ginen ailegatu; hurrengorako utzi beharko!

MASKARA JANTZI DUGU

astelehenetan, 16:30etik 17:30era, Sondikako Psikogelan

Seme-alabak ditugun sondikoztarrak astean behin batzen gara gurasolagun egitasmoan parte hartzeko. Aukera ezin hobea da beste guraso batzuekin euskaraz egiteko eta gure arteko harremana sendotzeko. Gainera, ekintza sorta zabala egiten ditugu umeekin. Azkena maskara tailerra izan da. Primeran pasatu genuen maskarak marrazten eta kartoi meheak ebakitzen. Baina inportanteena: eredua izan ginen seme-alabentzat, momentu oro euskaraz egiten entzun zigutenak. Laster, plastilinazko perretxikoak!

ZAMUDION ERE BAGABILTZA GURASOLAGUNAK

martitzenetan, 16:00etatik 17:00etara, eskolan

Adi egon, eguna aldatuko dugulako. Baina jarraituko dugu orain arte egindakoa egiten: gure artean euskara lantzen, euskara maila hobetzen, beste guraso eta ume euskaldunekin harremanak sendotzen… Hurrengo tailerra: plastilinazko perretxiko euskaldunak! Animatu eta parte hartu gurekin! Eguraldi ona badago, eskolako patioan topatuko gaituzue; eta eguraldi txarra eginez gero, liburutegian.

SOLOAN

azaroak 9

Jose Antonio Lekuek oso ikastaro interesgarria eman zigun neguko solo ekologikoari buruz. Berarekin ibili ginen soloan eta negutegietan, bere azalpenak arreta handiz entzuten eta ahal genuen neurrian laguntzen. Asko dira ortu ekologikoek ekartzen dizkiguten onurak; hona hemen batzuk: leku garbiak dira, era osasuntsu batean landu diren produktuak hartzeko aukera ematen digute, karbono-aztarna gutxitzen lagungarriak dira eta ingurumena zaintzen dute. Eta zer landatu ahal dugu neguan? Ba, azaloreak, zerbak, alkatxofak, porruak, brokolia…

ONDDO FESTA

azaroak 15 eta 16

Zapatuan goiz-goiz altxatu eta Sarriara abiatu ginen. Lurrera begira eta saskiari ondo helduta, perretxikotan ibili ginen han eta hemen. Eta hurrengo egunean Geldoko txokoan batu ginen berriro, aurreko egunean batutakoa jatekoa prest. Imajinatuko duzuenez, mendiko altxorrak protagonistak izan ziren gure mahaian. Menu hau dastatu genuen: onddo kroketak, onddo budina, onddo entsalada Idiazabal erara, espagetiak mendiko angulekin eta onddo saltsarekin, haragia onddoekin eta esne frijitua onddoekin. Ahogozoa egin zaizue, ezta?

Eskalada egitera!

Bai, emozio-ukitu bat emango diogu Berbalagun egitasmoari eta abenduaren 13an Eginora joango gara eskalada egiten ikastera. Leku hori aukeratu dugu, hango mendietako hormak egokienak direlako eskalada egiteko. Hala ere, eguraldi txarra balego beste leku batera joango ginateke. Ikastaroa Iñaki Sagrariok eta Joseba Ruiz "Dylan"-ek emango digute. Horiek oso eskalatzaile trebeak dira. Oso saio erraza izango da, edonork egiteko modukoa. Baldintza bakarra da bakoitzak bere ekipamendua eraman behar duela: arnesa, katuoinak, soka eta kaskoa. Ekipamendurik ez baduzue, aukera bat Txorierriko mendi taldeekin harremanetan jartzea izan daiteke, edo eskalada egiten duen baten batekin, ea haiek non utzi ahal dizueten esaten dizueten, edo non alokatu. Hitzordua goizeko 9etan ipini dugu Lezamako frontoian.

AIKOR! 142 | 2014ko azaroa
www.aikor.com



.eus domeinua, norbanakoentzat eskuragarri

Euskararen Nazioarteko Egunean 1.000tik gora .eus domeinu aktibatuko dira

PuntuEus Fundaziotik adierazi duten bezala, Euskararen Nazioarteko Egunean 1.000tik gora .eus domeinu aktibatuko dira. Horiek guztiak abiarazte-aldian erregistratu dira, eta abenduaren 3tik aurrera domeinua publiko zabalarentzat egongo da eskuragarri.

Dagoeneko, 92 aitzindarik aktibatu dute domeinua, besteak beste Euskaltzaleen Topaguneak, Azkue Fundazioak eta DYAk. Abenduaren 3an, EITBren Bilboko egoitzan elkartuko dira domeinuizen berriari ongi etorria emateko eta Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko.

Edozeinek eskatu ahal du .eus domeinu bat. Irailean ipini zen martxan enpresek, erakundeek eta elkarteek domeinua eskatzeko fasea, eta abenduaren 3an norbanakoei zuzendutako epea zabalduko da. Oso prozesu erraza da: www.domeinuak.eus webgunera jo behar da, erregistratu nahi dugun izena eskuragarri dagoen begiratu, eta bertan dauden pausoak jarraitu. Eus. domeinua erabili ahal izateko baldintza bakarra da webgunearen edukien zati bat euskaraz egon behar dela, nahiz eta webgunean beste hizkuntza batzuk ere erabiltzen diren. Euskarazko edukirik izanez gero, webgunearen informazioak edo gaiek euskal kulturarekin egon beharko dute lotuta.

Bestalde, aurretik ditugun domeinuak eta .eus domeinua bateragarriak dira euren artean, eta nahi beste egon ahal dira indarrean domeinu-izen berdinerako. Horretarako, DNS sistema (Domeinu-izenen Sistema) konfiguratu behar dugu.

Euskara eta Euskal Kulturaren Komunitatearen Interneteko lehen mailako domeinua da .eus, eta euskara eta euskal kultura sustatzea du helburu. Baita Euskara eta Euskal Kulturaren Komunitatea kohesionatzea ere. "Beraz, tresna bat da, euskara beste hizkuntzen mailan kokatzen duena, euskararen normalizazioan lagunduko duena eta euskararen herriari nazioarteko aitortza eskaintzen diona".

Proiektuak 2007. urtean eman zituen lehenengo urratsak eta hurrengo urtean PuntuEus elkartea sortu zen, Euskararen eta Euskal Kulturaren Komunitatea egituratzeko helburu zuela. Elkartea 2012. urtera arte egon zen zabaltze prozesuan eta proiektuarekin 58 elkartek egin zuten bat. Urte horretan PuntuEus Fundazioa eratu zen eta .eus domeinuaren eskaria aurkeztu zen erakunde eskudunaren aurrean (ICANN). Domeinua onartu zutela iazko ekainean jakin zen eta Interneten aurtengo udaberritik dago ikusgai.

Euskaraz jakin; euskaraz bizi

t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Euskaraz bizi bazara, adiskide, 40 zenbakia ikusirik, *berrogei* irakurriko duzu; gaztelerazkoak, aldiz, *cuarenta*. Bestalde, bide-seinalean *Goikolandabarri* idatzita badago, erdaldunak ulertu barik irakurriko du. Euskaldunak, ostera, ulertu egingo du bide-seinaleko mezua. Eguneroko bizitzan paisaia euskalduneko iragarki eta testuekin harremanean ari da hiztuna. Ondorioz, euskaldunaren hitz-jokoek, ideiek, asmakizunek, euskal kultura osotuko dute eta erdaldunarenak beste bide batetik joango dira, euskaletik baino erdaletik.

Euskaraz bizi denak Derioko *Alboka* taberna ikustean –berez, alboka musika-tresna da– pentsatuko du: "Kontxo! mozkortiarentzat izen polita ze, asko edaten denean, albo-alboka irteten da tabernatik. Edo autoaren modeloa *Laguna* Renault-a ikusiz pentsatuko du: aiko, behingoz, euskarazko izena: laguna.

Dena den, euskaldunak erdaldunaren hizkerako kalkoak ere ekartzen ditu euskarara, eta gaztelera jakin ezik nekez ulertzen dira. Adibidez: "Ezin kendu dut tabakoaren tximinoa" entzunik, zer ulertzen du entzuleak? Edo, "Banoa etxera, nik ez dut margotzen ezer hemen", zer da?

Euskaraz bizi denak, azken batean, euskal mundua eraikitzen du, euskal kultura. Horrela, tentakuluak baino txibiaerroak esango du; deabruari Azpeitiarrek "Infernuko Txikito" deitzen diote; eta beste herri batzuetan, baltseoko dantzari "dultze meneo" esango diote.

Azkenik, egunaren buruan –euskaraz bizi denak– oherakoan amamak esaten dionean:

–Hil dun sua Miren? Erantzungo du:

–Bai amama, hil dut.

Hara adibidea, euskaraz bizitzea zer den aintzat hartzeko.

AIKOR! 142 | 2014ko azaroa
www.aikor.com

Etxeko sukaldaritza

Hegaluzea, laban

t: Maite Lekerika

Osagaiak (lau lagunentzat):
–Hegaluze-medailoi 2 (450 gramotakoak)
–Patata handi 2
–Kipula 2 (garbituta eta xerratan ebagita)
–Pipermorro 1 (laban errea, garbituta eta zerrendatan ebagita)
–Berakatz-atal 2
–Orioa
–Gatza
–Ardao zuria

Prestetako erea:

Patatak garbitu eta xerratan ebagiko doguz. Bost minutuan egosiko doguz ur eta gatzagaz. Uretatik atera eta sikatuko doguz. Kipulea oriotan erregosiko dogu gatz apur bategaz. Berakatza prijiduko dogu. Piperra gehitu eta su eztitan prijiduko dogu.

Bestalde, laba-azpil baten osagaiak ipiniko doguz ordena honetan: patatak, kipulea, piperrak eta hegaluzea. Orio apur bategaz igurtziko dogu eta ardaoa botako dogu. Labara sartu eta han 15 minutuan eukiko dogu, arraina eginda dagoan arte.

Pastea, ahuakate-pestoagaz

Osagaiak (lau lagunentzat):
–Albakea
–Ahuakate heldu 1
–250 g pasta
–50 g pinazi
–4 koilarakada oliba orio
–Koilarakada bi limoi-ur
–Berakatz-atal 2
–6 cherry tomate
–Gatza eta piperbeltza

Prestetako erea:

Pastea egosiko dogu. Ontzi baten, ahuakatea (zurituta eta hazur barik), albakea, pinaziak, berakatza, orioa eta limoia ipiniko doguz. Gatza eta piperbaltza bota eta ondo irabiauko dogu. Pastea pestoagaz nahastuko dogu eta cherry tomateak gehituko doguz.

Zer irakurri?

Txerra Rodriguez (Liluraturia)

Erraiak, Danele Sarriugarte (Elkar, 2014)

Liburu gordinaz erditu da Danele Sarriugarte. Bere lehen eleberriarekin indartsu sartu da gure letren panoraman. Haize freskoa ekarri duela esango nuke. Eta ez da gutxi.

Meritua du liburuak. Ia ez du istoriorik, monologo luze bat da, oharrez eta esaldi luzez beteta dago. Eta, hala ere, narrazioak harrapatu egiten zaitu, goitik behera. Ausart jokatu du egileak, eta emaitza paregabea lortu.

Emakume baten bizitza sentimental eta sexuala da istorioaren muina. Hogeita hamar urte inguruko emakume baten bizitza. Ezelako lotsa eta erreparorik gabe jarduten du: natural-natural. Ez nuke esango sexuari buruz euskaraz idaztea tabua izan denik orain arte. Ez, baina oso salbuespen gutxi daude. Eta Danelek, nire ustez, lortzen du benetakotasuna harreman sentimentalak marrazten, patxadaz eta gordin antzean marrazten baditu ere.



Gaia ez ezik, idazkera ere berezia du liburuak. Bitxi egiten da hasieran Danele Sarriugartek darabilen estiloa. Izan ere, esaldi luze-luzeak erabiltzen ditu, puntu eta koma gutxi, eta oharrak (joan-etorrian ibiltzera behartzen bazaitu ere, oharretan harribitxi askotxo dago). Baina horrek ez gaitu kikildu behar. Istorioa hain da erakargarria non azkenean gustua ere hartuko diozun egilearen estiloari. Ez zaizu damutuko.

Amaitzeko aitorpen txiki bat egin nahi dut, irakurle. Goiko hitzak nireak dira, nire sentitzen ditudalako. Baina internetetik kopiatu ditut (guztiz ez, batzuk nireak dira). Euskarazko liburuen gainean irakurleek egindako kritikak batzen ditu 111 akademiak. Irakurletik irakurlera egindako kritikak, hain zuzen ere. Euskarazko liburu bat irakurri aurretik, nire gomendioa da hara sartzea eta beste irakurleek esandakoa irakurtzea (eta haiei kasu egitea). Baietz mundu berri liluragarriak deskubritu! http://www.111akademia.com/

Erakusketak

Sondika

> Leire Gonzalezen umeentzako ipuinen ilustrazioak. Abenduaren 1etik 16ra, liburutegian.
> Gabonetako postalak. Abenduaren 16tik urtarrilaren 30era, liburutegian. Sariak banatzea, abenduaren 19an.

Derio

> "Los nadies", Antonio Sotoren eskutik. Abenduaren 10etik 17ra, Kultur Birikan. Abenduaren 11n, 13an eta 16an, bisita gidatua.

Larrabetzu

> Gabonetako postalak. Abenduaren 15etik 19ra, Anguleri Kultur Etxean.

Hitzaldiak

Zamudio

> "Teideko gailurreraino", Jon Aroztegiren eskutik. Abenduaren 17an, 19:30ean, Zamudiotorren. Lagatzuk antolatua.

Derio

> *Los nadies* liburuaren aurkezpena, Antonio Sotoren eskutik. Abenduaren 15ean, 19:30ean, Kultur Birikan.

Larrabetzu

> Literaturaz berbetan: Mikel Peruarenaren *Su zelaiak*. Abenduaren 18an, 19:00etan, Arrekikilik eta Udalak antolatua.

Ikastaroak

Sondika

> Udal ikastaroetan izena ematea: abenduaren 9tik 12ra arte, liburutegian.

Zamudio

> Zen. Abenduaren 12tik 14ra, eskolako areto nagusian.

Larrabetzu

> Umeentzako zirko tailerra. Izena ematea: abenduaren 14ra arte (txinpasmendi.guraso@gmail.com).

Derio

> Aeromodelismo. Abenduaren 20an, 11:00etan, frontoian. SUBYKEk antolatua.

Ikuskizunak

Sondika

> Txotxongiloak. Abenduaren 12etan, 18:00etan, liburutegian.

Derio

> *Giza eskubideak*, Carlos Martínezen eskutik. Abenduaren 10ean, 20:30ean, Gurea Aretoan.
> *El ritmo es el vínculo*, Camilo Mejiaren eskutik. Abenduaren 11n, 20:15ean, Kultur Birikan.
> *Erdaldun berrien kluba*. Abenduaren 13an, 20:00etan, Gurea Aretoan. Tximintxek antolatua.
> Antzerkia, Kukuke eskolaren eskutik. Abenduaren 16an, 18:00etan, Gurea Aretoan.
> *Olentzeroren sekretua*. Abenduaren 22an, 17:30ean, Kultur Birikan. Tximintxek eta Kurkuluxetan taldeak antolatua.

Lezama

> Ipuin kontalariak. Abenduaren 16an eta 18an, 18:00etan, ludotekan.

Irteerak

Sondika

> Arrazola. Abenduaren 14an. Izena ematea: abenduaren 10era arte, liburutegian. Gurasoen taldeak eta Udalak antolatua.

Loiu

> Gorbeia (abenduaren 31n). Izena ematea: 688 67 95 88 / 607 75 09 85. Olentzeroren etxea. Abenduaren 20an.
> Izena ematea, Angulerin. Txinpasmendik antolatua.

Derio

> Putterri. Abenduaren 14an, 07:30ean, Nagusien Etxean. Untza mendi taldeak antolatua.

Kirola

Derio

> Gimnasia erritmikoa. Abenduaren 20an, 18:00etan, kiroldegian. Miragarri taldearen eskutik.
> Gizonezko areto-futbol triangeluarra. Abenduaren 23an, 19:00etan, kiroldegian. Pozgarri FSTk antolatua.

Zamudio

> Eskolartekoen esku-pilota partidak. Abenduaren 6an eta 20an, frontoian.

Bestelakoak

Derio

> Gure señeak elkartearen egutegiak aurkeztea. Abenduaren 3an, 18:00etan, Kultur Birikan.
> Olentzero eta Mari Domingiri gutuna ematea. Abenduaren 10etik 23ra arte, Kultur Birikan.
> Pintatzen zuzenean eta poemak errezitatzen, Antonio Sotoren eskutik. Abenduaren 14an (12:30, elizaren plazan) eta 16an (16:00, Sollube kalean).

Zamudio

> Durangoko Azokara joateko autobusa. Abenduaren 6an, 09:30ean, Txorierriko etorbideko geralekutik.
> Bizkaiko Bertsolari Txapelketa. Sarrerak hartzeko azken eguna: abenduaren 1ean; autobusean lekua hartzeko azken eguna: abenduaren 12an. Helbide honetara mezu bat bidali: lagatzu@lagatzu.org.

Larrabetzu

> Txikientzako irakurketa saioak. Abenduaren 12an, 17:00etan (3-4 urte) eta 18:00etan (0-2 urte), liburutegian.

ZELAN?

POSTAZ:
Aikor!lagun fitxa(*) bete eta bidali:
Aresti, 2 behea - 48170 – Zamudio

E-POSTAZ:
aikortxori@aikor.com helbidera

TELEFONOZ:
94 452 34 47
688 86 41 35

AHOZ:
Zure herriko euskara
elkarteko kideren bati esan

(*) Fitxa aldizkarian bertan eta erakundeetan, liburutegietan, komertzioetan... utziko ditugun diptikoetan topatuko duzue.

1000 baietz!

Egin zaitez Aikor!lagun

Etxe bat, lagun bat

Egin zaitez AIKOR!lagun

1000 baietz!

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota: 30 euro _____ Beste bat _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

Orri hau helbide honetara bidali:
AIKOR! Aldizkaria
Aresti kalea 2, behea – 48170 – Zamudio

aikor! txorierriko aldizkaria

15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira. Fitxategiaren erantzulea TOTOAN TXORIERRIKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuok kudeatuko ditu. Kontrakoa esaten ez diguzun bitartean, zure datuak kudeatzeko baimena dugula ulertuko dugu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahalko dituzu. Horretarako, helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BEHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).

10. URTEURRENA

BOLALEKU
JATETXEA

- Eguneroko menuak
- Menu bereziak
- Karta
- Txuletoia txingarretan erreta
- Kantauriko itsaskia

Bolapark:

Neguan, eguraldi txarra egiten duenean, aukera paregabea eskaintzen dizuegu umeek aterpean ondo pasatzeko eta, bitartean, zuek sukaldaritza tradizionalaz gozatzeko

- Urtebetezeak
- Jaun-hartzeak
- Bataioak..

Garaioltza, 1 - LEZAMA

94 455 41 10

Jarraitu Facebooken